



anaitasuna

977.EKO OTSAILAREN 1EKOA. 333.ZENBAKIA.25 PTA



yeu:
euskaldunak
bi aldiz
preso

geure herri eta jendeen alde



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



AURKIBIDEA

- 3.: Editoriala
- 4-5: Tantara
- 6-7: Ondarroako greba
- 8.: Gartzelatik oihua.
- 10-11: PNN.ak: osaturiko zauria.
- 12-15: Yeu-n, bi aldiz preso
- 16.: Bankoak eta euskara
- 18.: Kaierori hiru galdera
Zornotza: burruka
astea.
- 19.: Euskal Ezkerraren
garrantzia
- 20.: Euskal Herriko
normalizatzerantz.
- 21.: Derioko plazan...
- 22.: Santutxu: aldizkari
berri bat.
- 24: Udako Unibertsita-
teaz.
- 25: Osasun arloko zapal-
kuntza.
- 26-27: Israelako judu
berriak.
- 28-30: Zinea eta kritika
- 31: Irudimenaren
txokoa.
- 32-33: Postaz etorriak
- 34: Kaleko

Maketapena: Fernando eta
Zumalabe.
Marrazkiak: A. Olariaga
Argazkiak: Arkoila eta X.A.
Moldiztegia: Gráficas
Sampedro
Part. Alzola, 2
BILBAO.

Dep. Legal: Bi-7753-1967

GURE AZALA

Euskaldun gazte talde batek zenbait hilabete dirau urruneko Yeu irlan, "bi aldiz preso", beraiek dioten bezala, herbesteratuak eta presoak bezala bizi baitira. Euskaldunok Yeu-ra joaten hasiak gara eta, jakina, Poniatowsky-k bere aldetik bisita hauei oztupoak jartzen ere hasia da. Barruko horrialdeetan ikusiko duzue mugatik 700 kilometro-tara dagoen irla honetara egindako bisita baten historia.



Eskuin muturreko erhaileek beren azken arrakasta ospatzen egongo dira une hauetan. Eta ez da guttiagerako. Suarezren gobernuak beren menpean edukitzea ez da txantxetako gauza.

Amnistiari buruz zerbait esango zutelako itxaropen ttikiz, euskaldun askok 26an egindako Ministral Batzarrearen berriak espero zituzten egun horretako gauean. Eskuin muturraren egintzak zapuztutzeko, zer amnistiari buruz eskua piska bat zabaltzea baino hoberik? Behin eta berriro baieztatzen duten bezala, gaurko gobernariak herriaren boza entzuteko prest baldin da daude, zer erantzun bat ematea baino hobe?.

Horrela ez da gertatu, tamalez. "Muturretako" indarrak direla eta, indar horien aurka jo beharrean, Suarezren gobernuak egin duena herriaren bozaren kontra ekitea izan da. Manifestaldiak zaintzen hasi beharrean debekatu egin ditu, hots, eskuindarrek nahi zutena, eskertiarrak baitira kaleetan —Suarez berberaren aurka askotan— beren bozak entzun erazten dituztenek. Eskuin muturreko indarkeriak atxakiaz hartuz, Suarezek beretzat kritikalari diren manifestaldi horik debekatu ditu oraingoan.

Atxaki berbera erabiliz, "ordena publikoaren" indarrak sendatu nahi izan dituzte Suarezren gobernuko ministrariak, lau mila milioi pezetaz indar hauk lagunduz. Ordenako indarrek orain arte izan duten jokabidea ikusiz, nork sinets laguntza hori herriarentzat ongarri izango denik? Ala indar horik apolitikoak direla sinetsi behar al dugu? Sinesgaitza zaigu, eta hara zergatik. Azken egunotako adibide soil bat aipatuko dugu. Ezker indarkeriaren bat jazotzen denean, ezker antolamendu horren buruak jazarriak, atxilotuak eta probarik gabe askotan hauzitarara eramanez izaten dira. Telebistan, une berean, buru horien argazki, historiak eta abar agertzen dituzte, erhaile arriskugarriak izan daitezkeela esanez. Zer jazo da, berriz, Madrileko ikasle eta abokatuen hilketen ondoren? Eskuin muturreko buruak direnen etxetara joan —ez baitute, noski, ihes egiteko beharrik eta, gizabide osoz esplikazio batzu eskatu dizkie.

Eskuin muturreko indarrak Suarez zintzoki eta "behar den" bezala portatzen ari dela esatea ez da arraroa. Nork ez luke gauza berbera esango, eskuindarra izanez gero?.

PNNren ESKEAK

Institutoetako PNNok berriz ere notizia gara Gipuzkoan. Baina ez Gipuzkoan bakarrik, baita beste probintzi askotan ere. Gure arazoa oso sinplea da: lan kontratorik eta lan estabilitate minimo bat garantzizatzen digun ezer, ez dugu. Egoera honen injustizia bere kontura lan egiten ez duen edozeinek konpreni dezakeela iruditzen zaigu.

Gure inestabilitate honen soluzio bezala Heziketa Ministerioak oposizioen sistema klasikoa eskaintzen du baina hau irakaskintza maila guztietako irakasle gehinek gaitzeten dute.

Ikastaro honetan behin eta berriz eskatu zaio Ministerioari Estatu mailan dugun Koordinadoraren bidez elkarriketak hastea arazo honen soluziobide bat aurkitze arren. Hala ere Ministerioak ez du erantzunik eman orain arte. Gehiago oraindik, oposizio konbokatoria bat laister azalduko duenaren notizia iritxi zaigu. Oposizioak ez dute deusik konpontzen, zeren eta memoriz gai batzu ikastea, gero klasetan esplikatu ez direnak ikasteak denbora kentzen du ikastetxean lana hobeto prestatzeko. Beren partetik bakarrik onhartutako sasi erreformaren bidez metodu zaharrak disfrazatzeko modu bat dela iruditzen zaigu eta logikoki Estatuak dominatzen dituen komunikabideen bidez baliatuko dela jende aurrean presentatze arren.

Lerro hauen bitartez gure erabakien berri herri osoari zabaldu nahi diogu: ikasleei egiten diegun kalteaz oharturik, eta metodu honetara beharturik egotea asko sentitu arren, metodu hau azkenekoa baita, ondorengo eskabide hau eskatuz epe zehatzarik gabeko huelga bat hastera goaz:

- 1.- Lan estabilitatea
- 2.- Sindikatzeo eskubidea
- 3.- Seguritate sozial osoa eta lan gabezia asegroa.
- 4.- Trienioen eta antzinatasunaren pagua

5.- Bizitzaren igoeraren arabera sei hilabetero soldatak berrikustea.

6.- Irakaslearen kontratazio eta kontrola demokratikiaz kontestu batean, bertan zer ikusirik duten guztiek parte harturik.

7.- Oraingo oposizioak segituan deuseztatzea, lanik gabe daudenak irakasle-gora sar daitezen beste erreglamendu bat pres-tatu bitartean, irakasle-gora bakar bat sortzeko lehen pauso bezala.

8.- Klase bakoitzeko ikasleak gutiagotzea.

9.- Denen eskolatzea eta debaldezkoa izatea, eta irakaskintza pribatuari diru laguntzarik ez ematea.

10.- Estatu mailako egoera plurinazionala eta beste herrialde berezik osaturik dagoenez gero PNNok herri guztiek irakaskintzaren maila guztietan beren hizkuntzan kulturaren heitzeko eta ikasteko duten eskubidea eskatzen dugu.

GIPUZKOAKO INBKO PNNEN KOORDINADORA PROBINTZIALA

TXOKO EDER-EN: IKURRIN LAPURTUA

Txoko Eder Bilbo Zaharreko Jatetxe jator bat dugu, bertan egiten diren menestra izugarriengatik mundu osoan, eta estranjeriaren zenbait tokitan ere, ongi ezaguna.

Bertako ugazabandreek, gobernuak horretarako argi berdea eman bezain aguro, balkoian ikurrin eder bat ipini zuten, baina hurrengo larunbatean, Urtarrilaren 22an, gauean, guztiok ezagutzen ditugun betiko ezezagunak etorrita, balkoira igon eta hura, masta eta guzti, eramane zuten. Demokraziaren izenean, noski.

JESTORIEN KONBENIOA

Inkesta bat egin ondoren Jessorietako langileok bi asanblada izan ditugu, bata Abenduaren 19an eta Urtarrilaren 11an bestea puntu minimu batzuk jarriaz, patronalarekin elkar hizketan hasteko.

PUNTURIK GARRANTZITSUENAK HAU DIRA

- Konbenioa probintziala izango da.
- Soldatak 8.000 pt. gehitzea eskatzen dugu argi eta garbi.
- 40 orduko lanaldia astero, larunbatak jai izanez eta 3 hilabetetan "Jornada Intensiva" delakoa aplikatuko da.
- 30 eguneko oporraldiak denontzat.
- Emakume eta gizonezkoen arteko kategorien berdintasuna, lan baldina Soldadardina.
- Asanbladak egiteko eskubideak.

BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO DIPUTAZIOEK IKURRINARI EZETZ

Bizkaiko Diputazioburuaren proposamenduz, Jaurerriaren etxean, ez dela inoiz ikurrina ezarriko (sic) erabaki dute diputatuak. Bizkaiko Herriak sekula izendatu ez arren, horregatik beronen sentimenduak hain zintzoki interpretatzen dakiten jaunok, erabaki benetan ausart horrekin, beren burua gloriak koroatu dute betiko.

Augusto Uncetak, dena den, ongi koroaturik zeukan berea, 1966.ean, Gernikako alkatea zenean, Franco jeneral jaunari, Gernikako hiri eta jendeari egindako kondaezinezko mesedearen oroipenez, hiriaren diamantzeko domina erregalatu zionetik.

Gipuzkoan, kalaber, agertze publiko eta erdipirata baten ondoren, Diputazioako balkotik bandera euskalduna kendu dute. Mugimenduen printzipio oinarri aldazinen arauera jotzen dakitenik, behintzat, ezin uka. Bapo jaunok!



Pasárgada IRTEN DA

Pasárgada kultur aldizkariaren lehen alea, 1976.eko neguko, hain zuzen, jadanik kalean dago. Manuel de Seabra eta Carlos Fonseca e Silva-ren zuzendaritzapean egindako literatur aldizkari hau Lisboan argitaratzen da, urtean laur ale agertuz. Bertako lanak, gainera, Iberiar Penintsulako hizkuntza guztietan azaltzen dira. Oraingoan, Gabriel Aresti, Luis Haranburu-Altuna, Juan San Martin eta Xabier Kintanaren artikulu eta obra batzu dakartzea.

Alea: 150 pezeta. Urteko abonamendua: 550 pezeta. Eskatzeko: Pasárgada, Rua da Rocha, 95-3 dto., Lisboa - 3, Portugal.

SOZIOLOGIAKO IKASTALDIA U.E.U.n

Aurtengo urtarrilaren 7an bildu zen Sail hontaz arduratzen den Irakasle taldea. Ikastaroaren prestaera nolabait martxan jartzeko, gai batzu aipatu ziren. Hauxek dira interesgarritzat jo zirenak:

- 1.- Hirigintza eta industriaren eragina Euskal Herrian.
- 2.- Muestragintzarako jakin beharrekoak.
- 3.- Estadua eta klaseak
- 4.- Aberriaz teoriak
- 5.- Euskararen egoera gaur

Gai zerrenda hau ez da proposatzen erabatekoa bezala. Zuzeneko interesatuak ikasleak izanez gero, hauen esku dago proposamendu berrien egitea. Hutsune hori betetzeko zabaltzen dira ondorengo galdekizunak:

- 1- **Goizeko emankizunak**
Aipaturiko zerrendarekin ados ez egotekotan, esan:
 - zein gai kendu behar den.
 - zer gehiagotu
 - beste oharren bat
- 2- **Arratsaldeko mintegiak**
Orobat, arratsaldeko mintegiei buruz, esan:
 - zerrendako gai horietatik zeintzu hautatzen diren.
 - zerrendan ez datozen beste batzu (Izendatu)
 - lanerako metodoa: mintegiak nola muntatu.
 - beste oharren bat

Otsailaren buruan itxiko da erantzunak jasotzeko epea. Proposamenduak U.E.U.ko Idazkari-tzara bidali. Alda. de Recalde, 46-1 dcha. BILBAO-11, Paulo Iztuetaren izenean.



BARRABAS-EN EGIAK

Barrabas-ek, Bartzelonako hurrengo kirol aldizkaria, oraingoan azal ezin ikusgarriago bat agertzen du Bilboko Athletic-ek Real Madriden kontra lorturiko garaipena dela eta. Zenbaki berean, Real Sociedad-i buruzko informe eder eta objektibo bat dator, eta horri esker euskal ekipo horrek Gipuzkoa Foot-Ball taldea delako izena izateko gestioak egiten diharduela jakin dugu.

Gure Zorionak Barrabasekoei eta Gipuzkoa Foot-Ball taldeari A, eta Foot-ball izena, eta ez futbol, da, hain zuzen euskarazkoa. Bestela Eibartarrei galde!.



ondarroa greban

Ondarrutarrek badakite ikurrin hori noren den-baren aurrean jarria izan zen...

Ondarroara heldu ginenean bere kaletako giroan alaitasuna eta tristura nahasten ziren. Alde batetatik, hainbat ikurrinek ondarrutarren aurpegiak alaitzen zituzten. Bestalde, hala ere, marinelen eta makinisten greba luzeak eta armadoreen joera ulergaitzak herriaren bihotza gel zorian jartzen ari zen.

Zertan da arazo handi hau? Hara hemen guk hartu ditugun zenbait zehaztasun. Marinelen botza entzun nahi izan genuen baina berauen ordezkariak ez zuten prentsarekin hitz egiten nahi, beraiantzat hitz egitea arriskugarria baita.

MARINELEN ESKEAK

Urrun-arrantza edo "pesca de altura"n 1.500 lagun lan egiten dute Ondarroako portuan. "Bajura"koan zortzirehun bat. Berezitasun hau garrantzi handikoa dugu, oraingo arazoak lehen taldea, hots, "altura" edo arrastrekoa jotzen baitu, "bajura"koek normalki lan egiten duten artean.

Mila eta bostehun "altura"ko marinelek Euskal Herritik kanpotik etorrikoak dire gehienak, Andalusiatic eta Extremaduratic, batez ere. Langile zintzoak ditugu hauk baina, kanpotarrak direnez gero Ondarroan oso gutti "herriratuak" edo integratuak. Ez gera hemen arazo honen su-traiak ikertzen hasiko, lan horrek bere sakontasun berezia exigitzen baitu. Integratorik ez hau aipatzen badugu marinel hauek duten "peontza" lan maila hobe ulertzeko da.

"Poi" hauek armadoreen entepresetan urte luzez ez dute ahotsik izan. Armadoreek eman-

MARINELEK ZER NAHI DUTEN

Hona hemen marinelek egin-dako eskakizunak, beraiek egin-dako idazki batetan agertzen diren bezala, eta armadoreen alde-tik hartu zuten erantzuna.

"Ondarroako Alamedan —ez baitugu beste toki egokiagorik— bildu garen Ondarroako "arrastre" arrantza-erako marinel guz-tiok puntu hauk erabaki ditugu: dako aginduak obeditu dituzte, beren biziera gogorrari isiltasun-ean ekiten. Arrantza aldetik urte onak izan dira joandakoak eta itsas-peoi hauen zurrumurr-ruak armadoreek eta patroiek diru bidez ixildu dituzte. Baina urte onak amaitu dira eta arrain ezak entepresa hauen urrezko iturriak ia osorik hertsu ditu eta une honetan hasi dira eztabaidak. Lehen marinelek alokairu mini-moen hestutasunak orduak sartuz eta beste era batzuz zabal-tzen bazituzten, orain minimo hori gora jaso nahi dute.

1.- 35.000 pezetako alokairu minimo bat, beste gehigarri-rik gabe emana, eskatzen dugu.

2.- Lan-egutegi bat beharrez-koa dugu eta bertan gabone-tako eta gabonzaharretako jaietan untiak portuan nola egongo diren seinalatua izan-go da.

EXIGITZEN DITUGUN PUNTUAK

1.- Ofizial diren bi alokairu extrak exigitzen ditugu. Ex-tra bakoitza lehenago garanti-zatutako alokairuaren balo-rea izango du.

2.- Alokairu bakoitza ordain-tzean, entepresak bere agiri berezia eman beharko du.

3.- Armadore entepresak Se-guritate Sozialaren Erregime-nak eskatzen dituen zehazta-sunak bete beharko ditu, bai Seguritate Sozial arloan eta bai Istripu kontzeptuan.

4.- Behar-beharrezkoak ditu-gu hilero sei atsedan egun eta

egun hauk ez dira diruaren truke aldatuko.

5.- Igande eta jai egunetan ez da untzirik itsasoratuko eta Marina barruko agintariei itsasoratze horik debekatzeko eskatuko genieke.

6.- 30 eguneko oporraldi ordainduak —alokairu errealez— eskatzen ditugu.

Honaino 1.500 marinelek eskatutakoa. Hemen duzue orain "Unión de Armadores del Puerto de Ondarroa" k idatziz emandako erantzuna.

"Urtarrilaren 3an gure Elkar-teak "Comisión Negociadora de Marineros del Puerto de Ondarroa" denek izenpetutako agiri bat ezagutu du. Idazki honetan eskakizun batzu agertzen dira.

Komisio hau atzo, Urtarrilak 3, hartua izan zen eta batzarre nagusi bat armadoreek izan ondoren bertan erabakitakoa jakin eraziko zitzaiela esan genien komisiokoei. Hona armadoreek hartutako erabakia:

Ondarroako Alturako Armadoreek ez dute greba inoiz onhartuko.

Idazki honen berri izan bezain aguro eta arazo honi konponketa bat bilatzen hasteko, marinel guztiei ordu egokian bere Entrepresetako untzitarra joatea gonbidatzen diegu, untziratzeko eta han emandako aginduak segitzeko.

Untziak itsasoratu bezain laster portuan geldituko den Harremanetako Komisio bat, arazo hauetara irtenbide bat aurkitzeko, Armadoreekin bilduko da. Harreman hauen oinharritzat gure arrantza-era erregulatzen duen Lan Arautegia hartuko da. Ondarroan, Urtarrilak 4".

Honaino marinelek eskatutakoa eta orain arte hartutako erantzun bakarra, "kontraproposamendu" bakarra. Ikus dezakegunez, elkarrizketa oso laburra izan da.

MAKINISTEN ESKAKIZUNAK

Armadoreen aurrean bi talde sortu dira: bata marinelena, makinistena bestea. Nahiz eta puntu

berdin batzu izan, bi taldeen exigentziak oso desberdinak dira gehienetan. Marinelek, beren ekonomia hobetzea nahi badute, makinistek batez ere, jai-egunak, oporraldiak, kai-egunak gehiago begiratzen dituzte. Talde bakoitzak bere burruka berezia darma. Zatiketa honek noski, lan-burruka honetan ez du ondorio handirik burruka berberaren indarrerako, untzi lanetan bai marinelak eta bai makinistak behar-beharrezkoak direlako. Besterik gabe, pasa gaitezen makinisten eskeak zerrendatzeraz:

— Ordenantzetan aipatzen den oporraldi-hilabetetik aparte, beste hilabete bat eskatzen dute makinistek, untzian egindako lan-or-



Ikurrina publikoki agertzeko baimena lortu zen egun berean Ondarroako hainbat balkoietan hiru koloreak agertu ziren.

dutatik aparte beste aisa edo atsedan orduak "lan-lekuan" egiten direlako. (Gure irakurleek ez al zuten eske berbera egingo beren lantokietan egunean 24 orduak egon beharrez gero?)

— Diru aldetik, mekanikariak hiru sailetan dituzten soldatak gehiagotu nahi dituzte, Nagusi eta Agintari den Mekanikariak 70.000 pezeta kobratuz, Mekanikari Nagusi eta Agintari ez de-

nak 50.000 pezeta eta Bigarren Mailako Mekanikariak 40.000 pzt. irabaziz.

— Herriko jaietan portuan egotea eskatzen dute ("no negociable" tzat hartzen dute eske hau). Gabon eta Gabonzahar jaietan ere herrian egon nahi dute.

Makinisten eskeak hartu duten erantzun bakarra hauxe da: untziak itsasoratu ondoren beren komisio bat portuan utz dezate-la, armadoreekin eskakizunak negoziatzeko. Edonork ikusi lezake, marinelen kasuan bezala, "itsasoratze" horrek izango litzukeen ondorioak: greba amaitzea, alde batetik, eta lehorrean gelditutako "komisioek" langile-itsasoratuen babesa eta indarra ez izatea. Gran Soleko uretatik laguntza bidaltzea ez litzateke gauza makala izango...

IRTENBIDEAK

Ez da gure lana irtenbideak non dauden esatea. Irakurleak berak sortu beharko du bere eritzia. Marinelek beren entrepresekin gaur arte izan dituzten harremanak "informalitate" handi baten kutsua dute, paternalismo baten fruitu bezala. Soldata bat kobratzean agiri bat hartzea ez al da gauza normala, edozer lantegian gertatzen dan gauza bat? Alokairu minimo handiago bat kobratzea ez al da normala ez jairik eta ez atsedan duen lan batetan? Bi marea hilean eginez gero, atsedan egunak sei izan beharko lukete —bi hirukotan zatituta— eta hiru marea eginez gero, sei egun horiek hiru bikotan banatu. Egundak, gainera gaurkoz, "lehorrean" jaiegun direnekin ez dute zer ikusirik, astegunetan tokatzen baitira gehienetan.

Lerro hauk argitaratu orduko irtenbideren bat aurkitua izango da honezkerok. Itsas-langileentzat irtenbide on bat izatea nahi genuke, 1.500 marinelok eta 140 makinistok Ondarroa, Lekeitio eta Bermeoko herri berberak baitira eta, galtzeko orduan, 54 armadoreek baino kapital guttiago baitute.

X. A.

gartzelatiko oihuak

ZAMORAKO PRESONDEGIAN SENITARTEAK
DITUGUNOK HURRENGO HAU AZALTZEN
DUGU:

Zamorako presondegiko egoera aldatu eta biguntzeko eginikako promesak egin ondoren, arazoak berdin edo txarrago dirauela ikusirik, hurrengo puntu hau kontutan hartzea pentsatu dugu. Puntuok ezgizakorrak ikusten baititugu:

1.—HYGIENEA.

- Egunero erabiltzen diren komunek ez dute sifoirik. Honengatik, edozein zoltasungai xarrapatzeko arrisku iraunkorrean aurkitzen dira.
- Pentsa ezinezkoa deritzogu, astean behin dutxatzeko, beraiek galdara berotu behar izateari.
- Beste aldetik, negu gorrian edo negu bizian arropa eta beste garbitasunguztiak ur hotzez egitea, sinesgaitza egiten da.

2.—KOMUNIKAPENAK.

- Nahiz eta presondegietako arautegiak, komunikapena edozein hizkuntzatan egitea onhartu, ikustaldietan gaztelaniaz mintzatzera behartzen gaituzte. Gauza berdina gertatzen zaigu asteroko gutunaz.
- Bestalde, 800 kilometro egin ondoren, hilean 2 ordu izatea onhartzinezkotzat dakusagu. Gainera, banan banan, senitarte hurbilenekin eta hango funtzionari batek lagundarik.

Logikoena inolako trabarik gabe komunikatzea izango litzateke, baina honek guztionek ez digu uzten besarkada bat ematen ere.

3.—JANARIAK.

- Janaria nahiko ez izanik, ez dute ematen uzten etxean prestatutako janaririk, okela xerra eta albardaturiko legatza izan ezik, ez eta beste janari produktu berezirik ere. Ohartxo bat egingo, etxetik eramaten dugun janaria gehienetan-lehenagoko egunean prestatutik hotzik heltzen da eta batzutan ezina da jatea.
- Haien elikatura hobe batetarako, beraiek, janaria prestatzea komeniko litzateke.

4.—ZENTSURA.

- Espainiako Estatu barruan agertzen diren egunkari, aldizkari eta liburuak —senitarte-koek eramanak— irakurtzeko eskubidea lor dezatela eskatzen dugu. Guzti hauk —denak legalak— ez dira haien eskuetara iristen. Gehiago esanez, hezikuntzazko liburuak, euskaraz idatzirik daudenak ez dira onhar-tuak edo ez zaizkie heltzen zentsuran luza-ro dirautelako.

Puntu hauei pertsonaren mantenu fisiko eta moraleko behar diren beste zenbaitzu gehit-zera goaz.

5.—HEZETASUNA.

Nahiz eta geletan berogailua jarririk ukan, liburutegian bakarrik funtzionatzen du.

Geletan luzaro izatea kaltegarri izan daiteke eta benetan kaltegarria da gure presoen osasunerako (erreuma, giltzurrun, biriki eta abarretarako...)

Presondegiko medikuak beste funtzionari bat bezala jokatzeko du, bere bizibidearen gizaki bete-beharrak alde batetara utziz.

PATIOA.

Konponketa batzuek ematen ari direnez, ez dute solasaldirako tokirik; ibiltzeko metro eskas batzuek soilki, gimnasia eta bestelako ariketak egin gabe.

Bestalde konpoketa hauengatik, ezina da ikas-tea, irakurtzea etab. Arrazoiak? zarata handi eta beldurgarriengatik.

TELEBISTA.

Ba dakigu aukera gutti dutela telebista ikus dezaten eta aukerok egitarau edo era batetako programa batzutarako mugatzen direla. Horregatik hauxe eskatzen dugu:

Informazio programa guztiak ikusi ahal izatea (telediario lehen, 2. eta 3.edizioa); baita kultur eta solas programak ere (filmeak, txapelketak etab).

Arazo sail hau ikertu ondoren, uste dugu, Demokrazi Estatu batetan —Espainiakoa definitu den bezala— Estatutu bat sortzea beharrezkoa ikusten dugu. Estatutu hau presoaren babesa izan dadin eta orain dela 30 urte gisara iraun ez dezan.

Zamoran, 1976.eko Abenduaren 19an.

ZAMORAKO PRESO-POLITIKOEN
SENITARTEAK

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE TURREZKIA**

pnn-ak: osatu gabeko zauria

Irakasle ez-numerariak (erdarazko laburpenean, PNN-ak). Azken asteotan hainbat aldiz entzun dugu izen hau komunikabideetan eta kalean. Urtarrilaren 18az gero, Lizeotako irakasle ez-numerariak greban dira. Unibertsitatekoek ere 24etik 29rako astean grebara joatea erabaki dute. Erabakiok eta grebok Espainiako Estatu mailan egin dira, modu honetan bertako Heziketa eta Zientziaren Ministergoari presioa egiteko.

Baina, zer dira irakasle ez-numerariak? Zer eskatzen dute?.

Izatez, kualitatiboki, antzerakoa da arazoa Lizeoetan eta Unibertsitatean. Eta hobeki ezagutzen dituzdan, artikulu honetan erabiliko ditudan eman gehienak, Unibertsitateko irakasleei buruzkoak izanen dira. Dena den, eman bertsuak kontsidera daitezke Lizeotakoei buruz.

- Kontratu laboralak.
- Segurtasuna eta egonkoitasuna lanean.
- Hilean 40.000 pezetatako soldata minimoa.
- Oposizio sistemaren desegitea. Eta bitartean egiteko diren oposizioen jeltzea.
- Unibertsital erakundearen autonomia.
- Gestio demokratikoa.

Hainbeste eskatzea ote da, Ministergoaren belarriak sistematikoki hain entzungor izateko? Dena den, eskarion artean lehena da gehien txunditzen gaituena. Irakasle ez-numerariak ez dute kontratu laboralik. Nahiz eta iraunkorki lan egin, urtean behin edo urte birik behin kontratu berria egin behar dute. Honela, ez dute segurtasunik lanean eta bestalde, aintzinasun eskubideak eta abar galtzen dituzte. Estatuak, bere boterean finkatuz, ez du legea betetzen, lege berberori entresia pribatuei bete erazten dien arren. Hori bai dela exenpluarekin predikatzea!

AURTENGO IKASTURTEA

Aurtengo ikasturtearen hasieran, izorraturik zeuden arren, nahiko motel zeuden irakasle ez-numerariak, ezintasunaren ezintasunez etsiturik. Baina animoak berotuko zituén diru altxaketa baten berri heldu zen haien belarrietara, eta —berorrek estamentuen arteko desberdintasunen handiagotzea ekarriko baitu— osatu gabe zegoén zauria birzabaldu eta zornatu egin da.

Arazoaren larritasuna eta desegokitasuna adierazteko, hona hemen Ministergoan onhartu diren soldata altxaketan adierazpena:



Ekonomilariak, maisuak, zientzigionak,... guztiak greban. Ikasgelak hutsik.

HISTORIA PIXKA BAT

Irakasle ez-numerariak, irakasleen arteko zati-keta nagusian beheko aldean daudenak dira. Goian, aginte, ohore eta segurtasuna eskuan, irakasle numerariak daude. Behean, aginterik ez, ohore gutti eta segurtasunik gabe, irakasle ez-numerariak. Numerarien nagusiagoa irabazitako oposizio batean finkatzen da soil-soilik. Hala ere, hain gauza tiki, soil eta ezer ez honek muga izugarria ezartzen du irakasle-estamentuen artean, seguritate, soldata, botere eta beste arlo batzutan ere. Lana —seguritate gabeko lana—, ordea, gogorrago gerta daiteke eta gertatzen da irakasle ez-numerarien artean.

Urteak dira, jasaten ari diren injustizia konturaturik, irakasle ez-numerariak burrukan hasi dira. Espainia mailan antolatu, eta horrela zenbait asanblada estatal egiten dute. Horretaz gainera, Unibertsitate guztietako ordezkariez talde koordinatzaile bat antolatu dute.

Talde koordinatzaile honen bidez, elkar hizketan eta negoziaketan aritu izan dira Ministergoarekin. Negoziaketaren maila gorenera ihazko ikasturtean heldu ziren, subsikretariarekin hainbat elkar ikusketa ukanez. Baina, hitz polit eta goxoak gorabehera, ez zuten ganorazko ezer lortu, eta aurtengo Ministergoek adarra jo dietelako sentsazioa dute.

Zerua eskatzen dute, ala? galdetuko bide du inork. Hala ere, egian esan, haien eskari-taula ikusiz, ez dirudi zentzuzko ez den ezer eskatzen dutenik, eta are guttiago, etorkizunari begira haien lanak ukan dezakeen eta duen garrantzia kontutan harturik. Hauxex dira prezeski eskariok:



	Dedikazio esklusiboz, astean eman behar diren ikastaldi orduak	Hileko soldata netoa 1976. urtean	1976.eko Urtarrilean egonen den diru altxaketa	Hileko soldata netoa 1977. urtean
IRAKASLE NUMERARIAK				
Katedratikoa	9	82.000	11.000	93.000
Agregatua	9	66.000	8.000	74.000
Adjunktua	9	48.000	5.800	53.000
IRAKASLE EZ-NUMERARIAK				
Katedratikoa	9	55.000	11.000	66.000
Agregatua	9	51.000	8.000	59.000
Adjunktua	9	34.200	5.700	39.900
Enkargatua	12	27.700	0	27.700
Laguntzailea	—	20.200	0	20.200

Titulazioari gagozkiolarik, enkargatu eta laguntzaileak kenduz beste guztiek doktore titulua dutela esan behar da; eta enkargatu eta laguntzaileak, lizentziatu edo goi mailako tituluak (arkitekto, ingeniari,...) dira. Ikastaldien gaiari buruz, diskriminapenik gabe lan egiten dutela esan behar da, hots, lan berdina egiten dutela.

Goiko koadroko zenbakiek nahiko argi adierazten dute arazoa. Ikus daitekeenez, gehien duenari, gehien altxatu zaio; alderantziz, guttien irabazten duenari —eta bide batez, lan gehien egitera behartua denari—, ez zaio ezer altxatzen. Hori bai justizibidea!

OPOSIZIO SISTEMAREN AURKA

Arazo honen muinean, numerari / ez-numerari (beste hitz batzuek, funtzionari / ez-funtzionari) bereiztasuna eta azken batetan, bereiztasun hori sorterazten duen oposizio sistema dago. Zeren eta oposizio bat gaindituz (eta sufrituz) heltzen baita numerari (funtzionari) izatera.

Irakasle ez-numerariak (eta numeari asko ere bai) oposizio sistemaren aurka daude, eta hau —beste gauza batzuren artean— ondoko arrazoiengatik:

- Praktikan oposizio sistema desegokia dela, aski frogaturik dagoen gauza bat delako.
- Oposizioa gainditzeko irakasleak elkarrekin enfrentatu behar direlako, eta honek ezinikusiak sortzen dituelako.
- Oposizioa prestatzeko, hainbat denbora (urteak) eman behar delako eta neurri handi batetan denbora hori galdu egiten dela esan daitekeelako.
- Oposizioetan paisatzen duten tentsioaren kausaz eta garaipenak ematen dieten segurtasunaz, irakasle asko traumatizaturik geratzen direlako.
- Eta abarregatik.

Bestalde, ba dirudi Ministergoak, irakasle ez-numerari mugimendua moteltzeko, harma

bezala erabiltzen dituela oposizioak. PNNen arazoaren ebazpide bakarra bezala, eta irakasleak tentatzeko baita bezala, oposizioa —eta beronek ematen duen segurtasuna— aurkezten da. Hala ere, dirudienez, Ministergoak itxura egiteko baino ez dituzke erabiltzen oposizioak. Komunikabideen aurrean propaganda eginez, hainbat plaza atera direla esaten da, zifra globalak adieraziz; esaten ez dena, plaza horik betetzeko zenbat jende dagoen da. Honela, adibidez, Espainiako Zientzi Fakultate guztietarako 165 adjuntu-plaza atera dira, eta 1182 irakasleak firmatu dituzte oposizioak (eta beste asko firmatu gabe geratu dira). Zenbait asig-naturaren kasuan harrigarriago dira datuak. Esate batetarako, Kimika Generaleko 8 plazetarako 151 opositore daude, Biokimikako 6 plazetarako, 88, Biologiako 6-etarako, 54,...

ESKARIAK ERDIESTEKO EGINTZAK

Baina, zer plangintza antolatu dute Unibertsitateko PNNek beren eskariak lortzeko? Elkar hizketa bidea uxatu gabe, baina horrekin irteerarik gabeko bide batetara heldu direla konturatuz, talde koordinatzailearen gomendioei jarraikiz, greba egitea erabaki dute 24tik 29ra doan astean. Honekin batera, Unibertsitateetako Errektoreen Kontseiluaren batzarregunaren bezperan, eta kontseilu horretakoak presionatzeko, herstaldi bat egingen dute, gau osoa Unibertsitatean pasatuz.

Arazoa larria da; injustizia nabaria; irakasleen arteko diskriminapena agerikoa. Unibertsitatea etor kizuneko gizartearen hazia lantzeko toki garrantzizkoenatarikoa delarik, eta bertako irakasleen lanaren kalitateak guztion ardura izan behar duelarik, harritzekoa da irakasle batzu —numeratu, gehienak— hain gaizki kontsideraturik daudela ikustea. Konponketa egoki eta justua opa diegu.

J.R. Bilbao
1977-1-24

yeu-n bi aldiz preso



Une hauetan hamaika dira Yeu-n dauden euskaldunak. Argazki honetan gehienak agertzen dira, bizi diren hotelaren aurrean "Anaitasuna" rako egindako talde batetan.

"Allo! Nous sommes içi, pres de la Gendarmerie. Les basques dissent quelque chose sur Ponia..." Irratitelefono batez jarraituz zitzagun polizia-ehunetik gora dabilta gaur egun Yeu-ko irlan hala zioten Urtarrilaren 23an, hara joandako 150 euskaldunek, gure hamaika presoek Gendarmerie-ra egunero bezala izenpetzera zihoazela, manifestaldi bat egin genuenean. Euskaldunak irla galdu hartara helduko zirenik ez zuen pentsatzen Poniatskyk. Eta, orainoan guk ikusi dugunez, hemendik aurrera Yeu-ra joango diren euskal taldeek Ponia berberak jarritako oztopoak gainditu beharko dituzte. Noiz ikusi da, ba, herri batek bere "preso arruntak hiltzaile eta bortxatzaileak" bisitatzea?

HAMAIKA PRESO

Hamaika dira gaur egun Yeu-n dauden herbestatu-presoa. Hona hemen preso hauen zerrenda: Uriarte, Ereño, Beñaran, Sagardia, Garitaindia, Makazaga(bi), Xabier Aya, Roberto Etxeberria, Perez Revilla eta Lazaro Arandia. Hamaiketik Yeu-ko kaletan gure zain aurkitu genituen gure untzia goizeko zortzietan irla jo zuenean. Gero "Tropa" k esango zigun bezala, euskaldun taldeek egindako bisita hauek herbestatuak eta presoak daudenen izpirituei gorakada handi bat egiten diete "bi aldiz preso" egoteari (herbestatu-presoa baitira) astuntasun piska bat kenduz.

Gu San Anton Abesbatzak antolatutako taldearekin batean joan ginen. Hau dugu orain arte bizkaitar talde batek egindako lehen bidaia, aste-

bete lehenago 50 gipuzteko beste bat egin baitzuten. Ehun eta berrogeitamar lagunek izan genuen bidaia ez zen txantxetako izan, Poniak jarritako lehen oztopoak aurkitu baikenituen, hastean, eta itsaso hasarre batek jarritakoak, amaitzean.

HIRU ORDU MUGAN

Yeu-ra joatekoan ez dago egunean behin irlara joaten den untzia galtzerik. Untzia galduz gero, zazpirehun kilometro barrurantz egindako ibilaldiak ez du ezertarako balio. Fromentine herriko portura untzia hartzeko garaiz nahi eta nahi ez heldu behar da, untzik marea gora heltzean alde egiten baitu, inori itxaron gabe. Euskaldunek unti hau galtzea...hara hemen orain Poniak duen helburu nagusia...Hau argi ikusi genuen gure ibilaldia mugara heldu zenean.

Arratsaldeko seiak hamar guttitan gure hiru autobusek muga jo zuten eta, hogeitaz minutuz espainiar polizia pasaporteak ikertu ondoren, polizia frantsesera heldu ginen. Une honetan hasi zen gure ibilaldiko oztopo nagusia, hiru orduz frantsesek mugan egon erazi baikintuzten arrazoirik eman gabe. Hiru autobusek apartatu ondoren, txoferrei autobus bakoitzeko giltzak kendu zizkieten eta denon pasaporteak bildu. Zergatik? Hiru ordutan ez zuten arrazoirik adierazi. Pasaporteak ondo ikertzeko ez zen izan, guretako batek bere pasaportea ez baitzuen eman eta, halere, inork ez zion ezer esan ez eta pasaporte eskatu. Han geunden bi kazetari, presio moduz, frantses polizia esplikazio bat



C.R.S. polizia bereziak arreta handiz segitu zuen Yeu-n egindako manifestaldia. Lehen planuan, C.R.S. polizi baten motorra, alboan, paisanoz irratitelefono bat eskuan daramala, beste polizia bat. Atzean ikurrin bat.

eskatzera joan ginen, ordu bat han 150 lagunek itxaroten egon ondoren. Poliziek "funtzionari" hutsak zirela esan ziguten eta ez frantses eta ez espainiar politika aldetik ez zutela presiorik sufritzen behin eta berriro esanez. Zortzietarako ibilaldia segitzen utziko zigutela promes egin ziguten. Ez zen horrela izan, zortziretan txoferrei "hoja de ruta" deritzon horria eskatu ondoren "fotokopia bat" ateratzeko automobil bat hartu eta polizia bik alde egin baitzuten. Mugan fotokopia hori egitea ez da gauza normala, bakoitzean ez baitute automobil bat hartu eta kilometro batzu egingo...

Yeu-ko untzia ez genuela hartuko bildur ginen. Gaueko zortzi t'erdia ziren eta ez genekien muga noiz pasatuko genuen. Azkenean eta inork esplikaziorik eman gabe gaueko bederatzietan ibilaldia segitzen utzi ziguten. Untzia galduko genuelako esperantzaz beterik egongo ziren frantses poliziek, baina ez zen horrela jazo, bidean ez baikinen ia gelditu. Zazpirehun kilometroak garai egin genituen. Goizeko zazpiretan "President Roland" untzi zaharrea geunden, Fromentineko portuan, Poniaren oztopoa gainditu ondoren. Untzian egindako bidea ez zen txantxetako ia, 150 lagunetik ia guztiok, itsasoa hasarre zegoela eta, mareatu egin baikinen. Itsasoan pasatutako ordu eta laurdena oso txarra izan zen. Azkenean, halere, Yeu-ko kaletan gure hamaika presoak ikustean, denok alaitu ginen, eta pasatutakoa, pasatuta...

YEU-KO BIZIERA

Gure hamaika gazteek, bisitalari-taldeak errezibitzeko, Yeu herriko dantza-leku edo "boite" antzekoa alokatzen dute eta han beraiek gertutako



Untziak Yeu-ko portua utzi zituenean presoan eta bisitatzailen kantak bat egin ziren, emozioa eta tristura bezala. Yeu-ko herri osoa agur honen lekuko izan zen.

eta zerbitzatutako gosari eta, behar bada, bazkariak ematen dituzte. "Tropa", "Argala" eta besteek oso ederki errezibitu gintuzten eta sukaldari trebeak direla agertu ere. Yeu-ko kaletan agurtu gintuzten baina gure inguruan, oso hurbil, une bakoitzean poliziaz ernu zeuden, beren irratitefonomoz eta harmaz prest. "Benetan presoak garela esan dezakezue lasai-lasai" esan zigun Trepak, "polizia hauen hurbiltasuna oso nabarmena baitugu". Horrela da. Egun osoan, bai oinez, bai autoaz eta bai motorraz C.R.S. edo polizia bereziak gure atzetik ibili baitziren, bai paisanoz eta bai uniformeaz, disimulurik gabe.

Yeu-ko irla pobre eta tristea dugu. Bertako bost mila bizilagunak arrain bidez bizi dira. Bizilagun hauekin harremanak izatea ez da gauza erraza gure gazteentzat. Alde batetik, polizien hurbiltasunak ez du harremanak izateko bidea erazten eta, bestetik, ofizialki euskaldun gazteei buruz egin den informaketa gure gazteak eraile eta preso arriskugarri gisa agertu ditu bai Frantziako eta bai Yeu-ko bizilagunen aurrean. Euskal taldeen bisitekin, hala ere, giro hau aldatzen hasi da eta irlako bizilagunak hamaika gazteak ez direla eraileak ikusten hasi dira. Nola, bestela, hainbeste bisita izan?

"Orangoan Gobernua "pasatu" egin dela pentsatzen dugu", esan zigun Yeu-ko bizilagun batek. "Gazte hauk oso ederki portatzen dira gurekin, oso atseginak dira", segitu zuen. "Zuen herriaren arazoaz zerbait jakiten ari gara piskanaka, bai gazteen bidez eta bai zuen bidez. Zerbait ulertzen hasi gara... Gure irlan ba dira bretoi batzuk eta Britainiako burrukaren bidez zuen burruka ere pisika bat ulertzen dugu..."

Ereñok esan zigunez, irlan ba dira euskal presoan laguntzaile bezala sortu diren talde batzu. "Orain arte katoliko progresista talde bat izan da bere laguntza eskaini diguna", dio Ereñok. "Taldea

EUSKAL HERRIAN

honen bidez kantari bretoi bat etorri zen behin eta orain dela egun batzu alemanen aurka frantses erresistentziak egin zuen burrukaz filme bat ere ekarri zuten. Filme honek gutaz hemen zuten kontzeptua hobetu egin du, filme horren barruan alemanek, frantses erresistentzian zeudenei buruz bortxatzaile, eraile eta gisa horretako juizioak agertzen baitzituzten... Orain guri antifaxista burrukalari bezala begiratzen hasi dira herrikoak eta, geure giroaren hobetze honek "kontraofentsiba" batetara pasatze-
ra bultzatuko gaitu gaurtik aurrera. Ofizialki Poniak egin duen gure kontrako propaganda deseg-
gin behar dugu. Euskaldun taldeen bisitak oso mesedegarriak ditugu arlo hontan..."



*San Anton Abesbatzak presoek eta Yeu herri-
koei kanta saio bat opa zien herriko elizan, zuen
kalitate handiaz entzule guztiok harrিতuta utzi
zitun.*

MANIFESTALDIA

"Les Ballereuses" dantza-lekuan —gure pre-
soek alokaturiko aretoan— gosaldu ondoren (gosal-
du ahal izan zutenek, noski, besteek erdi-lo, erdi-
maretuak baikeuden) presoek Gendarmerie-ra
izenpetzera joatean beren atzetik manifestaldi bat
egin genuen, txistulariek geure kanta ezagunenak
jotzen zituzten artean. Ia bi kilometrotako bide
hartan gure manifestaldietako oihu guztiak bota
genituen, beste herri batzu "Ponia" madarikatuari
opatuaz. Gure atzetik eta aurretik hogeiren bat po-
lizia genituen, manifestaldian gertatzen zenen berri
irratiz une bakoitzean berri emanaz. Herriko etxe
txiki eta zurien lehioetan herrikoek manifestaldia
begira zeuden, guztiz harriturik. Taldeen aurretik
gure presoak zihozkigun, "Argala" bere neska
lagun zuela, "Trepak" bere amarena zuen artean.
Ikurrinak ere han zirela zer esanik ez dago. Presoek
izenpetzen ari ziren artean kanpoan gelditu ginen
150 lagunek "Eusko Gudariak", "Batasuna" eta
beste kanta mordoska bati ekin gintzaizkion. Itzul-
tzeke bidean berdin, herriko elizaren aurrean gel-
ditu arte. Meza emango zela eta guk han egotea

ondo ikusia izango zela Yeu-ko herriaren aldetik,
mezan egon ginen guztiok, hamaika presoekin ba-
tetan. Meza bai Yeuko apezak eta bai gurekin joan-
dako bi abadek egin zuten. Frantses abadeak bere
homilian benetako amnistiaz eta benetako askata-
sunaz hitz egin zuen, euskaldunei ongi etorri bero
bat eman ondoren.

San Anton Abesbatzak, beren kanta-jantziz
eta guzti, meza barruan kantatu ondoren, meza
amaitzean elizan bertan kanta-saio bat opatu zuen.
Gu kanta-saio hau entzutean bere kalitate handiz
harriturik gelditu baginen, pentsa ezazue nola gel-
ditu ziren Yeukoak...Bitartean, eliz aurrean, poli-
ziak erne zeuden.

PRESOekin HIZKETAN

Meza eta kanta-saioa amaitzean, elizaurrean,
dantzari talde batek gure dantzei ekin zitzairen. Une
hartan irlako bi komunisterekin hitz egin genuen
eta irlako politik egoeraz berri izan genuen. Bost
mila bizilagunak "apolitikoak" direla esan deza-
kegu, hogeikomunista eta hogeik ta hamarren bat
sozialista kenduz. Bi komunistek bere alderdiaren
aurka zenbait kexa zituzten, alderdi komunistak
ez baitzuen euskal presoek buruz erabaki bat hartu
nahi. "Yeu-ko euskaldunei buruz behin eta berriro
idatzi diegu Nanteseko gure alderdiko lagunei baina
ez digute erantzunik bidali. Ez dute hemengo
arazoa ikusi nahi..."

"Giza Eskubideen Aldeko Elkarte"ko andre
bat ere aurkitu genuen, Yeura bere elkartearentzat
berri-emaile bezala joandakoa. Andre honek esan
zigunez, Nantes-eko huriburuan Yeu-ko arazoaz
interesa sortzen ari da, nahiz eta Frantziako komu-
nikabideek arazo hau alde batetara sistematikoki
utzi. "Ixiltasun kanpaina bat dagoela argi da", esan
zigun andreak. "Ixiltasun ofizial honen aurka gu
manifestaldi handi bat egiteko asmoa dugu Nante-
sen eta baita ere Teodorakis grekoa Yeu-ra ekar-
tzeke asmoa. Teodorakis Yeura etortzen bada, ko-
munikabideek euskaldun presoek arazoaz nahi eta
nahi ez hitz egin beharko dute".

Arratsaldean eta bostetan untzia hartu baino
lehen gure presoekin hitz egiten egon ginen. Hara
hemen Trepak eta Argalak bere lagunak izenean
esandakoak.

"Gure egoerari ez diegu irtenbide argirik
ikusten", esan zigun Argalak. "Batzuk elioteriaz
Frantziak Hego-Amerikako herrialdeetara bidali
nahi gaitu. Beste batzuk Frantziak Hendaiako
mugan jarriko gaituela diote, amnistia zabaltzen
bada... Guk uste duguna zera da: gure herriak ate-
rako gaituela hemendik, beti bezala, burruka bidez.
Hemendik ez dugu ihes egiterik, poliziek gure urra-
tsak segitzen baitituzte.



Hola zioen, bere aldetik, Trepak: "Frantziak nahi duena zera da: guk beste herri batetara bidaliak izatea eskatzea. Baina guk ez dugu nahi ez Suediara eta ez beste leku batetara bidaliak izatea. Guk Euskal Herrira joan nahi dugu eta, Argalak esan duen bezala, gure herriaren bidez lortuko dugu helburu hau".

Argalak, bere aldetik, "Ponia" rentzat arantze bat bihurtzen ari zaiola Yeu-ko arazoa dio eta, gainera, arantze hau ezin duela kendu. Ponia, berberak antolatutako tranpan erori da.

Beste gai garrantzitsu batzutat ere hitz egin genuen bi presoekin. Ikurrinaren ofizial "baime-naz", biok ados daude: Espainiako gobernuak egin duen gauza bakarra zera da, herriaren burrukak lortu duen ikurrinaren inposatzea onhartzea bakarrik. "Euskal Herriari buruz gaurko Espainiaren gobernuaren dinamika guztiz aldatu da, herria gobernu berberaren dinamika aurretik baitoa". Trepak dioenez, gaur egun Suarezek eman dituen urratsak P.C.eren eta PSOEn klandikaziogatik izan da. Oriol arazoari buruz, Trepak lehen Grapok iraultzaile talde bezala egindako gauza bat zela uste zuen, baina orain ez ditu gauzak argi ikusten. Argalak, bere aldetik, talde txiki batek gauza haundiak egin ditzakeela onhartzen du eta, Oriol-en arazoan, Grapok hori egitea posible ikusten du. Abaituaren arazoaz, biek gobernuaren antolaketa bat bezala ikusten dute, Euskal Herriak amnistiari buruz duen

batasuna hausteko saio bat bezala.

Yeu-ko arazoaz, Trepak Frantziako gobernuak ezin dituela Frantziatik kanpo bidali dio. Argalak, berriz, posibilitate hau ez du alde batetara uzten: "Frantzian dauden indar politikoen oreka aldatzen bada, guk arazo politiko bat garenez gero, gu kanpora bidaliak izatea posible ikusten dut". ETari buruz, nahiz eta taldea talde politikoa bihurtu, beti antolamendu defentsibo baten papera izan beharko duela etorkizunean diote biek. Euskaldunen aurka noizbait guztiek beren indarrak batzen badute, talde honen beharra argi ikusiko da. Etor-kizunean ez dute nahi taldea polizia politiko bat bihurtzea, armada baten hasiera izatea baizik.

Arratsaldeko bostak dira. Untziak tutuari ekin dio eta porturantz joan behar dugu. Presoak bizi diren hotelen aurrean "jeep" bat eta polizi talde bat daude, aterantz begira. Kaian azken aldiz dantza taldeek dantza egin ondoren, besarkada bidez presoak agurtzen ditugu. "Etortzen segi ezazue" diote presoak. "Hurrengoan Hego-Euskal Herriari ikusiko diagu elkar". "Goraintziak hango jendei. Ekin burrukan", "Aska gatazue".

Untzia itsasorantz doa. Yeu-ko herri osoa portuan dago. Presoek "V" bat hatzamarrez eginik agurtzen gaituzte. Guk berdin erantzuten dugu. Gure taldeko emakume batzuk malkoak dituzte begietan...

X.A.



Presoek "gendarmerie"ra joan behar dute egunero, bertan liburu batetan izenpetzeko. Egunero bidea bakarrik egiten badute, Urtarrilaren 23an benetako manifestaldi bat antolatu zuten hara joandako euskaldunek. Argazkian, presoak aurretik doazela, manifestaldiaren une bat.

EUSKAL HERRIAN

Bankuak eta euskara

Aurten, Euskal Herriko Bankulariek, "Plataforma Nacional de Euskadi" delakoaren barnean eskakizun hauek egin dituzte.

1.—Elebitasuna Bankuetako inpresuetan, batez ere beren langile eta bere bezeroen arteko harremanerako egiten dituzten paperetan.2.—Ikastolei laguntzea.

3.—Euskal kultur erakundeei ekonomi laguntza ematea.4.—Euskara eta euskal gaiak estudiatzeko dituzten langileei eta berauen seme alabei gai hauek estudiatzeko baldin ba dituzte ehuneko ehuna ordaindu.

5.—Euskal Herrian dauden bankuetan berauen lehiatetan ahalik eta gehien euskara dakiten langileak agon daitezela.

6.—Ekonomi estudioak Euskal Herri mailan egin daitezela.

Tira, ba dirudi bankuetan ere gai hauetaz arduratzen ari direla. Zorionak eta lehenbailehen beste profesioetan ere imitatuak gerta daitezela.



BIZKAIKO GOZOTEGIAK




Jauregui

HENAO, 12 *TEL. 4235637
C. VIEJA, 22 *TEL. 4155651
PZA. CAMPUZANO, 3... * TEL. 4411328

Bilbo

BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



Ondo bazkaldu ondoren, ba dakigu zer... Ba dau-
de, egon, paper sofisticatuagoak, kolorezkoak, usain
onekoak, etab. Gure ustez horik guztiok koplakeriak dira.
Egiaz behar dena hau da: paper on bat, tolestu beharrik
ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe
garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.

"EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.

kaierori hiru galdera

K.A.S.en SOZIALISMOA DOGMATIKOA DA.
K.A.S. MARXISTA-LENINISTA DA (Andoni
Kaierok Larrabetzun).

1977.eko urtarrilak 22 gaueko 8,30ak eta
E.S.B.ren aurkezpena Larrabetzun. Hizlaria Andoni
Kaiero.

Amateria ematen dio Kaierok mintzaldiari
eta elkarrizketa zabaltzen da. Galderak: hauteskun-
deak, etorkinak, euskal kultura, euskara, Ipar
Euskal Herria, amnistia eta betiko galdera.
"Ados al zaudete K.A.S.en puntuekin"? Kaiero-
ren erantzuna: "K.A.S., O.R.T.; P.T.; M.C.E.
(movimiento comunista de España. Hau ondo
errepikatuz) eta ez dakit nolako O.I.C.E. edo
"Izquierda comunista"rekin batu da.

Jende artean Larrabetzuko ez den beste
batek, Kaierok esandakoari honela gehitzen dio:
"Ni marxista eta E.S.B.ko militantea naiz. Mao,
Chian Kai-shek, eta japoniarren gerrako historia
bat argumentatuz honela bukatzen du: "Kontrae-
san nagusia hemen nazional arazoa da. Fronte aber-
tzale bat egin behar dugu. Nik ez dakit nolako
"pot-pourri" muntatzen nahi duen E.H.A.S.ek
Herri Asanbladekin, asanblada horietan espanolis-
tak ere barruan egongo baitira.

Berriz galdera egin zuenak: "Barkatu baina ez
didazue ondo ulertu. Nire galdera hau izan da:
Nola ikusten dituzue K.A.S.en puntuak?". Berriz
Kaierok: "Gu ez gara marxista dogmatikoak,
K.A.S. aldiz bai, K.A.S.en sozialismoa dogmatikoa
da. Gurea ez, gure sozialismoa librea da. K.A.S.
marxista-leninista da eta bera bezalako taldeekin
batu da.

K.A.S. ez dela marxista-leninista erantzuten
zaio, baina berak lehen esandakoa era honetara
azpimarkatzen du: "L.A.I.A. marxista-leninista da.
E.T.A.(p-m) marxista-leninista da. E.H.A.S. marxis-
ta-leninista da. Eta berriz ere P.T.; O.R.T.; M.C.E.;
eta O.I.C.E. izendatzen dira. Kaierok: "E.S.B.
autogestionarioa da. Ez du proletalgoaren dikta-
dura onhartzen, ez eta centralismo de estado".

Eztabaida hartatik Larrabetzuko herriak sozia-
lismoaz gauza onuragarriarik ez zuela aterako ohar-
tuaz ixiltzea erabaki genuen.

Nazkagarria izan zen gure eritziz Kaieroren
jokabidea.

- K.A.S. eta barruko taldeak, firmeki, mar-
xista-leninistatzat bota zituen.
- K.A.S. siglak, O.R.T.; P.T.; O.I.C.E.; eta
M.C.E.rekin nahasten saiatu zen. Ez zi-
tuen behin ere, E.K.A.(karlistak) Eusko
Sozialistak eta E.S.E.I. aipatu.

Zaila egiten zaigu pentsatzea, ez zegoela Kaie-
roren aldetik, taktika ondo pentsatu bat Larrabe-
tzu bezelako herri ttikietan aplikatzeko. Hau da:
K.A.S. komunistatzat edo guttienez extre-
mistatzat presentatzea.

K.A.S.en abertzaletasuna zalantzan jarri.

Lur landua dute helburu horik lortzeko, ez
baita alferrekoa izan 40 urteotako zapalkuntza.

Hiru galdera Andoni Kaierori:

- 1.— Zertaz oinharritzen zara K.A.S. marxista-
leninista dela esateko?.

2.— Non oinharritzen zara E.H.A.S. marxista-
leninista dela esateko?.

3.— Non oinharritzen zara K.A.S.en sozialis-
moa dogmatikoa dela esateko?.

Erantzunaren zain gelditzen gara.

Larrabetzuko 20 abertzalek

zornotzan

BURRUKA ASTEA

Euskal Herri osoan zehar AMNISTIAren alde nabari
den giroa gure herrian ere ez da guttiagorako, neska eta mu-
til, zahar eta gazte, haurrak berak ere kaleratu zaizkigu,
gure herriak burruka egunak bizi izan ditu, hona hemen
laburpen bat.

Urtarrilak 15.— Andra Mari eliz dorrean gartzelan eta
atzerrian egondako 11 herritarrek gose greba bat hasten
dute, eta agiri bat egiten dute AMNISTIA eta Tarabu-
siko langileen egoera aldarrikatuz.

Urtarrilak 16.— Goizean goiz eliz dorretik pankarta
handi bat agiri da zintzilik: AMNISTIA OROKORRA,
EMILIO ETA LUKEN ASKATU eta baita era ikurrin
bat.

Eguerdiko ordu batak aldera 500 pertsonak osaturiko
manifestaldi bat abiatzen da grebalarienganantz, bertan
AMNISTIA OROKORRA, eta EMILIO eta LUKENen
etxeratzea eskatzen da eta baita ere atzerrian dauden
gure herritarrena.

Arratsaldeko 7ak inguruan, goizean bezala, jendea eliz
dorrerantz doa, 600 pertsona, hainbat oihu entzuten
dira eta amaitzeko EUSKO GUDARIAK GARA abes-
tzen da.

Grebalariak han gelditzen dira, oraindik beraien egoera
oso ona, baina kanpandorreko hotza negargarria zen.

Urtarrilak, 18.— Asanblada bat egiten da eta erabaki
hauk hartzen:

1.— Bilboko Tarabusiren aldeko manifestaldia poten-
tziatu.

2.— Urtarrilaren 20 Greba Orokor bat egitea Zornotzan
Urtarrilak, 19.— Zornotzatik jende asko joaten da
Bilbora.

Grebalariak ahultzen hasten dira.

Urtarrilak, 20.— Herriko lantegi nagusienak geldi; Izar,
Aluminios de Galicia, Calibrados Vascongados, Papele-
ra del Carman, e.a. guztira 8.000 bat langile. Eguerdian
asanblada bat egiten eta manifestaldi bat antolatzea
erabakitzen da. Arratsaldeko 7etan Herria kalean zen,
lehenengo grebalarien bila abiatzen dira 2.000 bat per-
tsona, hauk irtetzen dira dorretik eta taldearen aurrean
jartzen, pankartak agertzen dira SOLIDARIDAD CON
TARABUSI, AMNISTIA OROKORRA, eta hainbat
eta hainbat ikurrin, oihuak denen ahoetatik ateratzen
dira. Amaitzeko udaletxera jotzen du jendeak IKURRI-
NA BALKOIRA esanez baina alkateak atzeko atetik
ihes egiten du, hori ikusiz han bertan komisio bat auke-
ratzen da hurrengo egunean alkatearengana joan dadin
Ikurrina eskatzen eta larunbat eguerdirako jendea uda-
letxe aurrera deitzen.

Urtarrilak, 22.— Eguerdian berriz ere jendea kalean
alkatearen erantzunaren zain, baina, poza putzura,
alkateak hurrengo astean egingo zuela plenoa eta ber-
tan erabakiak hartuko direla erantzuten du. Noiz arte
honela Alkate jauna?

ISABEL.



euskal ezkerraren garrantzia

Espainia demokraziarantz abiatzen ari da post-frankismoaren Gobernuak kontrolatuta, eta azken egun pre-demokratiko hauetan eskuineko alderdi politikoei tolerantzia bat eman zaie beren erakundeak eraikitzen has daitezen. Honela, Suarez-ek eskaintzen die eskuindar taldeei ezkertiarrek ez duten oportunitate bat. Beraz, ezkertiarrek lan egiteko baimena lortuko dutenean, eskuindarrek aurrea harturik edukiko dute. Puntu hau garrantzi handiko gauza da, kontutan hartzen badugu hauteskundeak apirilean izango direla, 40 urtetako gau ilun eta huts baten ondoren.

Euskal Herri mailan, Gobernuak jokabide berbera hartu du. PNV-ek bere mitinak eta bilerak egiten ditu, batzutan baimenaz eta besteetan toleratuta. Alderdi honek ba du bere antolamendua eraturuta, bere militanteak kontrolatu eta enkoadratuta. PNV-ek makineria martxan dago abiada handiz. Ba dirudi Gobernuak alderdi moderatuen arten indartsuen bezala kontsideratzen duela PNV, eta euskal ezkerreko alderdien gainetik aurrera har dezala nahi duela.

PNV-ren ezkerrerantz ESB dugu. Honi, zerbait uzten diote, baina PNV-ri baino guttiago. Eta ezkerrerago EHAS. Behar bada Gobernuak EHAS-ek lor dezakeen indarra ezagutu duelako, ez dio oraindik lanean hasteko baimenik ez tolerantziarik eman.

Gobernuaren jokua argi dago, puntu bi hauk adierazten digutenez:

- 1.- PNV-ri denboraren abantaila ematean, beronen erakunde eta militantzia osotuta egongo dira hauteskundeak heltzen direnerako.
- 2.- ESB eta EHAS, alderdi berriak eta beraz tradizio gabeak izanik, eta PNV zaharra eta historia on batekin, bi haiei eragozpenak ezarriz eta legaltasunean ihardue-

teko epea laburtuz, PNV-ren alde joango lirateke hauteskundeetako boturik gehienak.

Mendabal Europako Estatuetan eskuin indartsuak daude eta Euskal Herrian ere euskal eskuin indartsu bat egoteak, hau da, PNV indartsu bat, ez du inor harritu behar. Baina Estatu haietan ba daude ere ezkertiar talde indartsuak, eta Euskal Herrian ere euskal ezker indartsu bat behar genuke, baina orain arte ez dugu eduki ahal izan. Betidanik, hemengo talde ezkertiar indartsuak PSOE eta PCE izan dira, baina hauk ezin kontsidera ditzakegu euskal ezkertzat. Eta euskal ezker indartsu bat behar dugu. Zertarako?

- 1.- Ezkertiar sentitzen diren euskaldunek bere alderdia eduki dezaten.
- 2.- PSOE, PCE eta horien tankerako alderdiei konkurrentzia egiteko, eta euskalzaleago izatera bihur erazteko.
- 3.- PNV-ren kontrabalantza izatera hel dadin.

Gobernuaren jokua zein den ikusirik, euskal ezkerrek oso denbora gutti eduki ahal izango du bere erakundeak eraiki eta militanteak bildu eta antolatzeke. Beraz, epe oso labur baten barruan egin beharko du lan. Dena den, eta nola langileria, gazteria eta intelektualgoa, hau da, Euskal Herriko parterik dinamikoena ezker honetan sartuko den, ba dugu itxaropenik urrats handiak eman ditzakeela hauteskundeen aurretik, batez ere taldekeriak utzi eta alderdi bakar eta handi bat eraikitzeke gauza bagina. Honetarako, baseari utzi behar zaio hitz egiten. Herriak, ezkertiar herriak, batasuna eskatzen du. Basearen ahotsa jaso eta programara eraman besterik ez dago. Denbora gutti badago ere, zerbait egin dezakegu hauteskundeen aurretik, eta zuhur jokatuke bagenu bati baino gehiagori eman geniezaioke sustorik.

Xabier Gereño



HEGO EUSKAL HERRIKO BIZITZE SOZIAL ETA POLITIKO NORMALERANTZ

Francoren diktadurak iraun duen 40 urteotan, Euskal Herriaren historia burrukez, gogorkeriaz eta samintasunaz bete da. Masen eta herri gurariaren zapalketa systematikoan oinharrituriko erregimen autoritari honen aurka —kapital handiaren interesen zerbitzu soilean nabarmenki egon den erregimena berau—, gure herria izan da aurrez aurre eta zuzenkienik burrukatu duena.

Francok herriari gainjarri dion monarkhiaz hasten da politik erreforma izeneko porzesua, boterearen tapotza beste atal burjes batzuri ere zabaltzen diona (baina, horregatik, kapital handiaren hegemonia zalantzan jarri gabe) eta bere zapalmoldeak aldatzen dituena, irekitasunezko prozesu kontrolatu, mugatu eta barregarri baten joanean. Hala ere, aski izan da Euskal Herri Langilea kaleratzeko eta urte osoa boterearen eta gorputz zapaltzaileen probokatze etengabeaz zipriztinezaturiko langile eta herri mugipenez josteko. Aski izan da, bai.

Haziz doa herriaren oihua, zapalkuntzaren gauetik irteteko gogo bizia eta, demokrazia eta nortasun politikoa konkistatzeko erabakia. Horren parean, herri oihuari entzungor egiten dion botere zentral intransigentearen kontzesio ttikiak. Herria eta boterearen arteko zuloak lehen bezain sakon eta gaindigaitz dirau, eta orian, gainera, erreformarako urtea betetzean, are nabariago dago. Gutienez, erreforma horrek —hori bai— abantail bat du esan dugunaz, hots, botere zentrala eta Euskal Herri Langilearen arteko burruka gehiago nabarmendu duela, eta hauxe da bera gainditzeko lehen baldintza.

Sei dira, funtsean, gure herriaren politik eta sozial normaleztapena egiazki eta benetan garanti-za dezaketan baldintzak. Horietako hiruk, diktadura eta faxismoarekin, berauk maskaraturik egon arren, ez dagoela demokrazia egiterik erakusten dute, hau da, diktadura frankistarekiko haustearen beharra adierazten digute. Eta hauk dira: amnistia osoa, mugarik gabeko askatasun demokratikoak ematea eta gorputz zapaltzaile eta banda faxista guztiak ezereztea. Hortik hasita, beste hirur baldintzek zentzu eraikitzaileagoa dute normaleztapenerako bidean, herri nahiei erantzun egoki bat ematea, halegia: gure nazional soberania eta geure etorkizun politik eta nazionala libreki erabakitzeko dugun eskubidea onestea, autonomi estatutu berri baten formulaz, gure herriak bere askapenerako burrukan lorturiko aurrerakadak kontutan harturik, autogobernu-maila handi bat lortzea, eta hartan, hiritarrek euskal gizartean zuzenki esku hartuz benetako herri demokrazia erdiestea.

Normaleztapen honetarako, ordea, bide bat ibili beharra dago aurretik.

Gobernuak, bere aldetik, oraingō hertsikeria alde batera utzi eta normaleztapen honetarako dukeen borondate ona erakutsi beharko du. Hori egiteko, aski litzateke amnistia osoa oraintxe ematea, oposizio eta masen indar guztiak libreki aritzen utziz, eta Estatuaren aparatuan, gorputz zapaltzaileetan bereziki, neurri demokratizatzaileak berehala jarriaz, bertako elementu faxista nabariak kenduz. Gobernuak, bistan dago, ba du aski indar, ultren aurkako neurriok berehala hartzeko, horretara bere demokrazi nahi egiazkoa agertuz. Referendum-aren ondorioak ikusita, ultraeskuindarrak bakarturik geratu dira, eta armadak eta gobernuak elkarren artean duten ongi konpontzeaz, ez dago bat ere arrazoirik bakeak egiteko lehen erakutsi horren kontra aipa daitekeenik.

Berehalako neurriok Euskal Herri Langileari eta beronen hautakizun demokratiko eta nazionalari zenbait bide zabalduko lizkiekete, eta horren kariaz, oposizioa herri indar guztien erakunde bategarria bat sortzera bultzatuko lukete, hortik, gorago esandako sei puntuen gainean normaleztapenerako prozesu bati hasiera emateko.

Behin botere zentralak onhartuz gero, aipaturiko erakunde bateratzaile horrek, behinbehineko gobernu autonomo baten oinharrian, euskal prozesu eratzaille bat zabalduko luke, horren bidez demokrazi eta nazional berreraikuntza moldatu eta Biltzarre Nagusi Eratzailerako hauteskunde deiak egiteko, Hego Euskal Herrirako autonomi estatutu berri bat sendatuz.


Bitartean, oraingō politik erreformak Ganbara eta Senatu zentralak antolatzeke irekitako hauteskunde prozesuak ez du bide egokirik eskaintzen euskaldunon porblema berezietarako, ez eta egiazko demokraziarako ere.

Ba dirudi, azkenik, ikurrina ez dela gehiago jarria izanen. Gure nazioaren simbolo horren inguruan euskaldun askok burrukatu dute, eta beraitako asko gaizki kolpaturik geratu ere bai. Honez gero, dena den, kalean dago. Arrakasta eskasa, halafedea, egindako ahalegin haundien ondoan. Dardara ematen du hain gauza funtsezko etagutienezko hori orain arte debekatu dutenen hertsikeriak. Azkenean amore eman dute, bai, baina agerraldi ofizialetarako oraindik galerazten irauteak azken ostikoak emateko eskubideaz baliatu nahi izatea besterik ez dateke. Ikurrina, beraz, jadanik legezkoa da, ofiziala izan ez arren. Berdin da; laster izanen da.

Santi BROUARD
E.H.A.S.eko erkidea



DERIOKO PLAZAN



"Hegelek nonbait zioen, Historia Unibertsaleko gertakari eta pertsonaia nagusiak birritan jazotzen omen direla. Baina zera eranstea ahantzi zitzaion: batean tragedia bezala eta bestean farsa bezala",

Karl Marx, Louis Bonaparteren "Brumaire"ren 18an

Duela urte asko, ia ia ahantzirik dago, Zumalakarregi izeneko jeneral mythiko baten ondoan, foruak direla eta, euskaldunek beren askatasunaren alde burrukatu zuten. Karlista izena omen zuten.

Gerra haren ondoan, karlista baten seme batek, Bilboko arranoak, lehengo doktrinari bide berria jarri eta alderdi nazionalista bat eratu omen zuen, PNV izenaz bataiatua. Karlismotik sorturiko alderdi gazte hark nazional arloan euskaldunak erne, bizkortu eta eragin zituen, guraso karlistek sema-alaba nazionalistak edukiz. Eta indar gaztea berauengan zegoen.

Errepublikari izeneko zerbait ere etorri omen zen, baina, dirudienez, eskuina ez zegoen konforme eta Estatu kolpe bat egitea erabaki zuen.

Euskal Herriari madrildar indar eskuindarrak, lehenago foruzale jator izan, baina gero, PNVkoen-gatik, erregezale soil geldituak zirèn karlista haiez baliatu ziren, eta horien bidez, tragediaz, tragedia haundiz, gure Herria odoleztaturik utzi zuten luzaro.

Geroago negu beltza etorri omen zen, elur ezin hotzagoak estalia. Madrildarrek, karlistei zerbait itxurazko botere eman ondoren, berauk politikatik baztertu zituzten. Erromak ere ez omen zien traidoreei ordainik eman nahi.

Alderdi nazionalista, agian hotzagatik, geldi, oso geldi geratu zen, eta berarengandik talde berri bat, dinamikoagoa sortu zen. Guraso nazionalistek mundura seme-alaba ezkertiarak zekartzaten eta berauekin negu beltza esperantzaz udaberritzen

hasi zen pittinka. Gazteok lehenagoko ideia zaharrei asmo berriak gehitu zizkieten eta gazteria osoa, bai eta adineko asko ere, berekin eraman zituzten. Gerra galdu zuen Herri zapalduaren arnasa berriro hasi zen entzuten.

Aitona eternalak agur egin zigunean, o penal, Madrilek, espantuz, Euskal Herriko egoera larria, gazte bihurriek eragina, ikusi zuen, eta euskaldunen haserrea estaltzeko, nolabaiteko konponketak egin behar zirela erabaki.

Eta jelauei, berrogei urtetan, noizbaiteko gerra urrun bat galtzean agian, beren indar guztiak galdu zituztelako, gartzeletan zeudèn gazteen gainetik pasatuz, Madrilek, gauzak konpontzeko asmotan, dei egin omen zien. Izan, berauk omen ziren, gobernuko en ustez, PCE eta PSOEkoekin batera, Euskal Herriko ordezkari eta solaskide egoki bakarrak. Eta Madrilerari joan ziren, Suarez jaunarekin, komediaz edo, mintzatzerari. Eta pozik geratu omen ziren guztiak. Eta gureko problemak, horrela, konpondu ziren.

Duela urte asko, ia ia ahantzirik dago, Go-bierno de Euzkadi mythiko baten ondoan, Estatu-tua zela eta, euskaldunek beren askatasunaren alde burrukatu zuten. Gudari izena omen zuten...

Eta hau hola bazan, sar dadila kalabazan, -ez kalabozan- eta irten dadila Derioko plazan. Eta Derion, lehen ez, baina gaur ba da plazarik.

Xabier KINTANA

SANTUTXU


"santutxu" aldizkaria kalera,

Hamabostaldi kulturalak potentziaturik, eta hauzategiko Elkarte guztiek parte harturik, aurrera joan dira hauzategirako aldizkari bat sortzearren egin diren bilerak eta jadanik kalean dago "SANTUTXU" aldizkari honen lehen alea.

Heren bat euskaraz dakar eta beste bi herenak gaztelaniaz. Bere atalak, editoriala, kultura (eus-kara, irakaskintza...), Gazteria, hirigintza eta sanitate, kirolak, kontsultorioa, haurren horria eta gutunak. Gainera noizbehinka, gai monografikoak agertuko dira.

Bi hilerik behin argitaratuko da. Finanziazioa, publizitateak eta harpidedunek eutsiko diote.

Izan bedi hauzakideen arteko konektagailu eta expresabide.



¡ TU REVISTA ... DE PROXIMA APARICION!
¡ ZURE ALDIZKARIA ... LAISTER ZUEKIN!


**EUSKALDUNAK,
erosterakoan,
euskarazko
publizitatea
kontutan
hartzen du
anaitasuna**



**Txekeak egiteko
orduan,
zure entpresara
ehun urte
atzeraturik dago**



Eskuz egindako txekeak.
Banan banan beteak.
Letra ona egiten saiatuz.
Kontrol ona izateko, gero, datu
guztiak, banan banan, matrize hestu edo
aparteko fitxetan birjarriz.
Guztira, denbora alferrik
galtzen, eta gero, gainera,
kontrolatzeko eragozpenekin.



Gure soluzioa, diru gehiago irabaztekoa izateaz gainera, dohainik duzu

Banco de Bilbao-n gero eta mesedegarriagoak izan nahi dugu zuretzat.

Eta horrexegatik, hain zuzen, geure Talondegia Etengabeak eskaini nahi dizkizugu dohainik.

Ez dira eskuz idaztekoak. Makinaz betetzen dira. Hau da, arinago eta argiago. Bata bestecaren ondoan. Horriak pasatu gabe. Etengabeak dira.

Datuak ez dira, erreferentzi moduan, berriz idatzi behar.

Azpiko partean ikatz-paper eta beste horri bana, neurri berekoak, daramatzate, eta bertan datu guztiak kopiaturik gelditzen dira. Zuk erraxki artxibatzeke.

Kontrol arin eta ezin egokiagoa, beraz. Pentsa ezazu, nominak ordaintzeko egunetan, zer nolako erraztasuna eskainiko dien horrek zure gizona beren lanean. Eta berdin era guztietako pagauk egiterakoan ere.

Zuk zeuk, administrazioan denbora

aurreratzean, jakina, horrekin dirua irabaziko duzu. Eta segurtasuna ere bai.

Eta, noski, soluzio hau eskaintzean, ezer ez kobratzeko pozaldia dugulako.

Holakoak lortzeko, aski duzu Banco de Bilbao-ren edozein bulegotara etorri eta bertan eskatzea. Inguruan ia 500 bulego dituzu.

Talondegia etengabeak

mesedegari
izateko
beste era bat



BANCO DE BILBAO

V udako euskal unibertsitatea prestatzen



Direla bizpahiru hilabete, V UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN AURREPROJEKTUA argitara eman genuen. Aldi berean, argi aitortzen genuen aurreprojecku hura probisionala zela. Beharrezko jotzen genuen, beraz, probisionaltasunez egindako Programaketa aldatzen, osatzen eta konkretatzen joan beharra.

Joan zen abenduaren 30ean, Idazkaritza eta Sailburuen arteko batzarre bat egin zen Bilbon horretarako, eta bertan erabakitako zenbait puntu, euskal kulturaren inguruan mugitzen den jendeari interesgarri dakizkiokelakoan, argitaratzea komenigarri iruditu zaigu.

PROGRAMAKETAREN ALDAKUNTZAK

Lehen Aurreprojeckuaren eskema hauxe zen, llabur esanda: GOIZEZ, ikastaldiak, Ikastoletako Irakasleentzat eta unibertsitariantzat berezituak; ARRATSALDEZ, Euskal Historiaz eta Zientzia politikoaz Ikastaroak, ikasle guztiei irekiak; eta GAUEZ, Tribuna.

Sailburu gehienek iritziz, Programaketa honetan halako desproporzio bat nabaria zen goiz eta arratsaldeko ekitaldien artean. Mintegien hutsunea ere nabarmena zela esan zuten gehientsuek. Akats hauek aztertu ondoren, Programa honela osatzea erabaki zen: Goizez, IKASTALDIK emango dira lehen programan proposatu bezala, baina beste sail batzu ere sartuaz hala nola, Euskal Historia, Zientzia politikoa, Psikologia... Arratsaldez, ikastaldietako lana erabat personalizatzeke, MINTEGIAK egingo dira sail guztietan. Sailburuen iritziz, hitzaldi orokorrak Euskal Kultur Asteen antza gehiago dute Unibertsitatearena baino, eta lan serio batetarako plangintza egin beharra dago. Programaketa berrizatu honen xedea hauxe izango litzateke: Sail bakoitzean Ikastaro serio bat ematea, ikastaldiz eta mintegiz ornitua.

Ikastoletako Irakasleen Ikastaroari dagokionez, Irakasleen Elkartea arduratu zen beraien Ikastaroa prestatzeko. Dena den, bildutakoek ustez, Ikastaro hau ere Udako Euskal Unibertsitatearen barnean ematea interesgarri litzatekela pentsatu zen, elkar ezagutzeak eta elkar bizitzak —egun batzuetako bederen— duten emankortasuna probetxatzeke. Bestalde, Ikastaro hau, nahiz eta mailaketaren arazo batzu konpongaitzak izan, egoki gerta daiteke Maisutza Eskoletako ikasleentzat ere.

Beste sail batzu ere baziren aipatu Aurreprojeckuan, B eta D mailako Irakasle titulurako Ikastaroak, Langile mugimendua eta Nekazaritzarena, hain zuzen. Sail hauek errespetatzea pentsatu zen. Baita ere, Langile mugimendu eta Nekazaritzarenaren kasuan, alor horietan mugitzen diren jende eta erakundeengan emankizun hauen ardura uztea onhartu zen.

TRIBUNA erabat onhartua izan zen eta proposamen bat edo beste bertaroko aipatu ere bai.

PRESUPUESTOIA

V Udako Euskal Unibertsitatearen PRESUPUESTOIA ere aurkeztu zen batzarre honetara, aintzin kontu gisa baino ez bazen izan ere. Presupuesto honen zenbait puntu zehaztu beharra dago oraindik eta Programaketa egindako aldakuntzei egokitu beharra ere bai. Ez dago, beraz, oraindik argitaratzerik. Dena dela, esan genezake seitek multiplikatu dela gitxi gora behera ihazkoa. Honek esan nahi du Euskal Herriko zenbait jende, enpresa, bankuetxe eta erakundeek diru laguntza opa-roa beharrezko izanen ditugula osatzen dihardugun Programaketa aurrera atera nahi baldin badugu.

NON ETA NOIZ V UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA?

Irakurleak ondo dakien bezala, Iparraldean sortu eta koxkortu da Udako Euskal Unibertsitatea. Ez dugu uste honen arrazoiak azaldu beharrik dagoenik. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatearen inguruan ibili den ikasle eta irakasleen kopurua gehienbat Hegoaldekoa izan dela ere, argi dago. Gauzak horrela, aspalditxotik problema planteiatua zegoen: non jarraitu behar du aurrerantzean? Egia esateko, Idazkaritzak bazituen zalantzak eta orain arte ez da ausartu hautapena egitera. Zalantza hauen nondik norakoak ere ikusiko ditu, nonbait, irakurleak. Dena den, beharrezkoa zen erabaki bat hartzea ez baitzegoen beti duda mudetan litzatekerik. Bildutakoek iritzia entzun ondoren —bazen Iparraldeko bat ere— eta batez ere, efektibitatea kontutan harturik, autengoz Udako Euskal Unibertsitatea Hegoaldera pasatzeak merezi zuela erabaki zen.

Azpimarratu beharra dago ez duela honek esan nahi Iparraldearekin erabat mozketak egin nahi dugunik. Aurten Nafarroan egitea erabaki zen eta daitekera da hemendik aurrera halako rotazio gisako bat edo hastea Euskal Herriko zazpi probintzietatik.

Aldiari dagokionez, Uztaileko azken hamabostaldia abuztua baino egokiago bezala aipatu zen.

UDAKO UNIBERTSITATEA... EUSKAL UNIBERTSITATEA

Honetan dago bada, gaurkoz, V UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN kontua. Bilboko batzarre hau, oro har, oso interesgarri izan zela esan genezake, Sailburuen elkar lanerako gogo eta ideiak ezagutuz gero. Gure ustez, V UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK urrats handi bat izan beharko luke gure azken helbururako: EUSKAL UNIBERTSITATEA.

Idazkaritzak



OSASUN ARLOKO ZAPALKUNTZA

Aurreko artikuluko batetan esan genuen bezala, osasuna herriaren eskubide bat da. Baina, denok dakigunez, errealitatean, eskubide hau lapurtu eta ukatu egiten zaio herriari. Nahiz eta osasuna urrearen prezioan duenaren arauera.

Nork kentzen digu, osasunarekiko dugun eskubide hau? Nik neuk hiru mailatan jarriko nituzke gure osasun arloko zapaltzaileak:

- 1.- Lehen mailan: Sanitariak
- 2.- Bigarren mailan: Medikuntz eta Sanitate Erakundeak.
- 3.- Hirugarrean: Bizi gareneko sistema bera

SANTARIAK

Izen honen barnean, sanitate arloan ari diren pertsonak adierazi nahi ditut, hau da, medikuak, erizainak, praktikanteak, farmaziariak eta abar.

Denik ezagutzen duzue, giza multzo honetan gaudenon mentalitatea. Salbuespenak kenduz, gehienak, klasistak eta elitistak gara eta geure interes hutsalei begira bizi gara. Hona heldzean, zera adierazi nahi dut, halegia, estatistiken arauera Espainiako estatuko medikuak Europa osoko mediku aberatsenatarikoak direla eta, horretaz gainera, gehien irabazten duten klaseen artean daudela.

Bestalde, salbuespen ohoragarriak kenduz, hemengo medikuok medikuntza liberalaren defendatzaile amorratuak gara, plurienplegatuak gehienetan, eta goitik behera ezarri diguten medikuntz antolamendua onhartzeko dugu. Medikuntza kaxkar, desegoki, arrotz eta sarritan arriskugarria egiten dugu, eta iraultzeko ahalmenik ez dugun sekta antzeko bat gara.

Eta abar luze batez luzatu behar litzatekeen zerrenda honekin bukatzeko, egunero ikusten dugun asistentzia desegoki eta euskaldunontzat zapaltzaile eta genozida salhatzeko, bularrrik eta indarrrik ez dugula esan behar dut.

MEDIKUNTZ ETA SANITATE ERAKUNDEAK

Hauekin ere gauza harrigarriak gertatzen dira. Gaur egun hirurehunez gora dira, Espainiako estatu osasun arloan ari diren erakundeak.

Hauetariko batzu, estatalak dira. Honela, Lanaren Ministergoaren aginte pean INP delakoa dago. Gobernazioaren Ministergo pean, sanitate erakunde guztiak. Herrietako Udalek beren sokorro postuak prestatzen eta finantziatzen dituzte. Gerraren Ministergoak bere ospitale eta zerbitzuak ditu. Eta abar.

Beste batzu, pribatuak dira. Denok ezagutzen dituzue Igalatorioak eta horrelako beste mila mutualitate eta aseguru pribatuak. Orain dela urte gutti, harrituta gelditu nintzen, horrelako aseguru baten ospitalera deitu nindueanean, beraiantzat lan egiteko eskaria eginez. Berek ipintzen zituzten bai kontsultagela eta bai eriak ere. Pribatuen artean erakunde erlijioso asko ere sartu behar dira, karitatezko bulego asko eta antzerakoak adibidez.

Polierakundeketa honek, dudarik ez, kaltea baino ez dakarkio herriaren osasunari. Erakunde asko egoteak berak, bat onik ez dagoela esan nahi du. Eta, benetan esan behar dugu, gauzek honela irauten dezaten interes handiak daudela (maila desberdinetan). Leku berean esku asko batera sartzen direnean, zer gertatzen den guztiok dakigu:

- a) Zerbitzuak eta medioak premiarik gabe ugaltzen dira.
- b) Burokrazia ageri da nonnahi.
- c) Osasunaren kontrolik ez dago.
- d) Kontrolaren faltan, inork ez du erantzukizunik hartzen.
- e) Diruarekin zer gertatzen den dakien amaren semerik ez da aurkitzen.
- f) Eta abar.

Hau guztiau dela eta, esate batetarako, jende arruntak ez ohi daki zeintzu bakuna hartu dituen, ez eta prezeski nolako operazioak jasan dituen ere. Eta medikuek berek ere ez dakite, zeren eta azterketa batzu aseguru sozialaren bidez egiten baitira, beste batzu pribatuki, eta horrela, ez da informazio osoa biltzen duen fitxategirik.

BIZI GARENEKO SISTEMA

Hirugarren mailan, bizi gareneko sistema kapitalista bera ipini dut. Honen barruan, Gobernu eta Farmazia eta bestelako trust handiak, mundu osoa erosteko gai direnak. Azken batetan, horik dirateke errudun handienak. Sistematikoki, bi ideia nagusi sartzen saiatu dira herriagan: a) Ezjakintasuna, berek nahi dutena egiten irauten ahal dezaten b) Inpotentzi edo ahulezi konplexu bat. Horien kausaz, herria ez da gai sentitzen medikuntz antolamendua kritikatzeko hasteko; medikuntza urrun dagoen gauza handitatzeko hartzen du herriak, kontuak eskatzeko eskubiderik ez balu bezala. Eta, zer esanik ez, hainbat interesek ez diote utzi nahi herriari, problema honetaz jabetzen eta beraren barnean dagoen zikinkeria eta gezurra azaleratzen.

P. Letamendi



israeleko judu berriak



Omar-en meskita Jerusalemen

Gure artean ez dira gutxi, euskara nagusitan ikasi dutenak. Euskaldun horik, "euskaldun berriak" deitzen ditugu. Ni neu ez nago guztiz konforme izen horrekin; baina eman dezagun, deitura hori egokia dela.

Zentzu hortan, Israelgo judu gehienak "judu berriak" dira, erdiek baino gehiagok nagusitan ikasi baitute hebraiera. Eta gertakari hau ez da gaurkoa bakarrik. Israel berria joan den mendearan erdian sortzen hasi zenetik hona, holaxe izan da: judu gehienak atzerrian jaioak ziren, eta nagusitan ikasi zuten herriko hizkuntza. Teodoro Herzl-ek berak ere ez zekien hebraieraz mintzatzen, Juduen Mugimendu Nazionala sortu zuenean.

Beste behin esan nizuenez, mila bederatzi ehun eta berrogei ta zortzigarrenean —orain hogeitau bederatzi urte— Israelgo Estatua jaio zenean, seihun eta berrogei ta hamar mila judu bakarrik bizi ziren lurraldean, eta ez zekiten denek hebraieraz berba egiten. Orduetik hona bi milioi judu etorri dira Israelera, eta guztiak integratu dira hebraitar kulturari. Niretzat, hauxe izan da Israelgo miraririk haundiena.

Hizkuntzaren aldetik, gaur egun ez dago aldeirik judu zaharren eta judu berrien artean. Israelen ez da igartzen nor den judu zahar eta nor judu berri. Bai batzuek eta bai besteek berdin xamar menperatzen dute hizkuntza. Ez zaio inori burura etortzen, judu berriek bigarren mailako hiztunak nahi idazleak izan behar dutenik. Aurtengo "Jerusalem Saria" irabazi duena, Polonian jaioa da. Samuel Joseph Agnon, mila bederatzehun eta hirurogei ta seigarrenean "Nobel Saria" irabazi zuena ere, Poloniatik etorri zen Israelera. Ephraim Kishon gaur egun Israelgo idazleriak famatuena, Hungariarra da. Israelen ez dauka inork hebraiera jatorraren monopolioa. Mito hori ez da hangoa. Israelen asko estudiatzen da hizkuntza; eta gehien estudiatzen dutenak, horiek dira, hobetoen hitz egiten eta idazten dutenak, judu zahar izan nahiz ez izan.

Hala ere, ez da inor harritzen eta gutxiago kexatzen, hizkuntzaren zabalkunde izugarri hontan, judu berri askok ez hain ondo hitz egiten ez badute, eta Gobernuko lehen ministruari berari ere noizean behin hutsen bat edo beste eskapatzen bazaio, telebistaz mintzatzen denean. Israelek hizkuntza sendo bat du, eta alde hortatik segurtasun osoz ikusten du etorkizuna.

Dakizuenez, ni Israelgo ikastetxe batetara joan nintzen, hebraiera nola irakasten zen ikustera. Sei aste egon nintzen bertan. Beste lagun askoren artean, holako judu berri bat ezagutu nuen. Meir zuen izena. Berak ba zekien hebraieraz hitz egiten. Baina beraren emazteak —Korneliak— ez zekien, eta harekin etorri zen ikastetxera, laguntzaile bezala. Adinetakoak ziren biak. Hirurogei ta hamar urtez gorakoak.

Ikasgela berean ihardun genuen bi astetan, eta ikasgelatik kanpo ere sarritan berba egiten genuen elkarrekin. Irakastaldiak goizean ematen ziren, eta arratsaldean hurrengo egunerako lana gertatzen genuen. Meir entzuten entzuten egoten zen ikasgelan —irakasleak ez zion ezer galdetzen—, eta gero arratsaldean lagundu egiten zuen bere emaztea, maisuak emandako ariketak prestatzen. Lagun haundiak egin ginen hirurok. Nik baino lehenago utzi zuten ikastetxea, eta beraien etxera joateko konbidatu ninduten, Euskal Herrira bihurtu orduko.

Meir Serbian jaio zen, Hungariaren albo alboan, orain hirurogei ta hamabi urte. Edukazio on bat eman zioten gurasoek. Jaioterrian, Jesuiten eskolara ibili zen; eta gero Italia eta Alemaniako Unibertsitateetan ihardun zuen. Koloniako Unibertsitatean Kornelia ezagutu zuen eta berarekin ezkondu zen. Azken gerrate haundian bere burua ozta ozta salbatu ondoren, bere emaztearekin eta hamalau urtetako alaba bakarrarekin Israelera etorri zen, mila bederatzehun eta berrogei ta zortzigarrenean, Israelek bere independentzia lortu zuen urtean bertan. Beraren emaztea alemana izanik, judu alema-



nek fundaturiko herrixka bat aukeratu zuen, bertan bizitzeko. Herrixka horrek Naharia zuen izena.

Urte hartan Nahariak bederatzehun bizilagun bakarrik zeuzkan, denak Alemaniatik etorriak. Alemania baino ez zen entzuten etxe eta kaleetan. Alkateak berak ere ez zekien hebraieraz mintzatzeko. Gizarte giroak ez zuen oraindio laguntzen eta behartzen, Israelgo hizkuntza berria ikastera. Baina laster aldatu zen ordurarteko egoera.

Hurrengo urtetik aurrera, lurralde askotako juduak etortzen hasi ziren herrira, milaka eta milaka, beren sorterriko hizkuntza bakarrik zekitenak: Yemeniarrak, Marrokiarrak, Poloniarrak, Hungariarrak, Txekoslovakiarrak, Georgiarrak, Tunisiarrak, Egiptiarrak, Iraquiarrak, Errusiarrak, Errumaniarrak. Batez ere Errumaniarrak. Sei urte geroago, mila bederatzehun eta berrogei ta hamaboskarrean, Nahariak sei mila bizilagun zeuzkan. Gaur egun, hogeitau hamabost mila dauzka.

Kanpotarren lehen uholdea etorri zenean, Naharia Babel Dorrearen antzeko bihurtu zen, kaleetan gutxienez hamaika hizkuntza diferente nahastean erabiltzen ziren eta: alemana, arabiera, hungariera, polskera, errusiera, txekiera, georgiera, sefardiera edo juduen gaztelania zaharra, frantsesa, ingelesa eta errumaniera. Batez ere errumaniera.



Mefalsim ("Bidegileak") kibbutzean kotoia biltzen.

Horregatik, bertako alemanek erdi barreka esaten zuten, herriaren izena aldatu egin behar zela, Naharia izena kendu eta haren ordeztu Nahariesku jarri, Errumaniatik etorritakoen hizkuntza bazter guztietan entzuten zen eta.

Hizkuntz nahaste hortan, jendea ezin zen bizi luzaroan. Hizkuntza bakar bat eskatzen zuen aldarrika gizarte bizitzak. Eta hizkuntza bakar horrek —hebraierak— laster menperatu zituen beste guztiak. Gobernuak —eta Sindikatu bakarrak ere bai— lagungarri guztiak eskaini zituen hortarako: mota askotako eskolak, irratia, telebista, liburuak, liburuxkak, egunkari eta astekariak, irakasleak eta abar. Urte batzuek geroago —eman dezagun, zortzi edo hamar urte—, Nahariako kale, lantegi eta bulegoetan hebraiera zen nagusi.




Indiarrek hebraieraz: hizkuntzaren normaleztapenak ez die konplexurik sortu.

Baina horrek ez du esan nahi, beste hizkuntzak zeharo desagertu direnik. Oraino ez zaie heldu hortarako ordua. Haurrek eta gazteek, bai: horiek hebraieraz bakarrik berba egiten dute, edonon eta edonoiz. Adinetakoak, berriz, etxean daudenean, beren sorterriko hizkuntzaz ere baliatzen dira. Judu berri horientzat, egunkari eta astekari asko argitaratzen dira herbesteko hizkuntzetan; eta irratian, hebraieraz gainera, beste zazpi hizkuntza erabiltzen dira; errusiera, frantsesa, ingelesa, errumaniera, hungariera, sefardien gaztelania zaharra eta hebraiera kutsuzko alemana (yiddish deitzen dena). Judu batzuk, gainera, ez dute ikasi oraindio herriko hizkuntza, batez ere ia beti etxean sarturik bizi diren emakumeek. Ezin esan dizuet zenbat diren horrelakoak. Ez dut uste asko direnik. Nik bat ezagutu nuen: Kornelia. Baina, azkenean, birlobatxoarekin hebraieraz berba egitearren, eskolara joan zen ikastera, bere hirurogei ta hamar urterekin. Hirurogei ta hamar urterekin! Holakoxeak dira Israelgo judu berriak.

Imanol Berriatua.

ZINEA ETA KRITIKA



Euskal Kulturaren munduan nabari den hutsune handienetarikoa bat, kritika serioaren falta da. Eta hau, bai literaturaren, bai zinearen eta bai beste arte moeten arloan. Kritika gabezia hau oso kaltegarri gerta daiteke euskal kulturaren hazkunderako, kritika baita, artean aurreranzko pauso finkoak emateko laguntzailerik onena. Honela, bada, hutsune hau betetzen hasteko eta laguntzeko asmoz, I. Zuazo idazleak zine-kritikaren oinarrizko lehen urratsak eman nahi ditu, prestatzen ari den artikulu serie batetan. Artikulu honekin hasera ematen diogu serie horri.

Azken hilabeteotan Europan ikusten ohi den zinema moetairen parte bat ikusteko parada ukan dugu, zentsuaren nolabaiteko irekitasuna dela eta. Horrela, denbora luzetan guretzat ikusteko ezinezkoak ziren filmeak, saldoka etorri zaizkigu bat-batean, zinefiloak poztuz eta erreprimituak, hein batetan behintzat, asetz.

Baina, berarekin batera, fenomeno horrek beste ondorio bat ekarri du: Gure artean dagoen kultura zinematografikoaren gabeziaren agerpen argia. Ez dugu ikasi filmeak kritikatzeko, inork ez baitugu irakatsi; arte eta saio zinegelek komertzialtasuna bilatu nahi dute, zine-forumak elkar hizketa eta eztabaida orduan hustu egiten dira; kasurik gehienetan, zine-kritikariek ez dute izen hori merezi. Egoera honek autodidaktismo batetara eramán gaitu. Izatez, ni neu ere autodidaktismoan higitu naiz. Horregatik, nire autodidaktismoaren hildoa—zeharo subjektiboa bestalde— beste batzuren-tzat baliagarri izanen delakoan, zenbait artikulu-tan laburtzera eta azaltzera saiatuko naiz.

FILMEA ZERGATIK EGIN DEN

Filme bat ikustean—filme hori kritikoki ikusi nahi badagu— hainbat galdera egin beharko

ditugu etengabe. Galdera hauen arteko lehena, hauxe izan daiteke: Zergatik egin da filme hau? Zeren eta erantzunaren arauera, egiten baita ondorengo kritika. Erantzuna era askotakoa izan daiteke komertzialtasuna lortzeagatik, propagandagatik, dokumentatzeagatik, espresio bide artistiko berriren bat lantzeko asmoz,...

Komertzialtasuna ohi da, maizen agertzen den filmegintzaren kausa: zinea espresio bide garestia da; bere inguruan industria oso bat du, eta honek baldintzak jartzen dizkio. Beraz, lehen puntu bezala, filmearen komertzialtasuna edo, hobeki esateko, filmean komertzialtasuna lortu nahiz sartu diren elementuak kritika daitezke (dirua ateratzea filmearen kausa bakarra ez denean, noski). Kritika hau bideratzeko galdera hauk egin daitezke: Filmearen harirako eta akzioa arintzeko beharrezko ez den pertsonaiarik agertzen al da? (hala nola, barre-eragilerik, sekretari ederrik, edo bestelakorik,...). Akziorako beharrezko ez diren planuak agertzen al dira? (publikoaren morboa edo sasi-satisfakzioa betetzeko, adibidez). Edo eta, akzioa tentsioaren bidez azaltzen al da? (hala nola, pelikula poliziakoetan edo menturazkoetan).

Filmea propaganda egiteko moldatu izan bada, galderak beste era batetakoak izan beharko dira. Adibidez: Zerbaiten aldeko propaganda egin da? (hau, filme politikoetan egiteko galdera bat da) Propaganda ala informazioa izan da? Filme propagandistiko hau egitean, azpijoko psikologikorik nabaritu izan al da? (azken hau, korto publizitarioetan egiteko galdera da; berorietan salgai den produktua eta mundu ideal bat nahasten baitira sarri).

Filmea dokumentatzeko izan bada, galderak bide honetatik joan daitezke: Argitasuna eta zehaztasuna lortu al da? Laguntza teknikoak gehiegi, nahiko ala urri gelditu dira? Didaktismoa lortu al da?

Espresiobide artistiko berria lortu nahi ukan bada, galderak asko korapilatzen zaizkigu, zinea arte bezala kontsideratu behar baitugu orain. Zineak, espresiobide bezala, artistak behar ditu, eta bere bilakaeran espresio-elementu berri askoren sorrera ikusi du: lehen planuak, travelling direlakoak, argi berezien erabilkera eta abar. Horregatik, filme baten zergatikoaz galdetzean espresiobide artistikoa dela erantzuten zaigunean, hurrengo galderak bide honetatik joan beharko dira: Ezer berririk ikusi al dugu? (Teknikaren aldetik —argiak, planuak,...—, gaia erabiltzeko moduaren aldetik —akzioaren aldakuntzak, denborarekiko jauziak,...—, gidoiaren



aldetik —problema psikologiko bereziak, pertsonaiek dituzten erreakzioak...—, eta abar).

FILMEAN ZER ESATEN DEN


Hauxe izanen da, beharbada, galderarik eztabaidatuena. Zenbat eta zenbat aldiz ez ote ditugun entzun honelako galderak: Zuzendariak —edo gidoiak— pelikula honetan, zer esan nahi du? Ez dut tutik ere ulertu. Edo eta, zer arraio egiten ote du eskena horrek? Ezertara ere ez dator. Galderok oso normalak dira, eta baldin eta filmea ikustearekin batera ulertzen ez badugu, ez dugu zertan geure burua tontotzat eduki behar. Pelikularen esangurak —baldin eta badu— ez du zertan berehala antzematuko modukoa izan behar; eta sarri azterketa sakonak egin behar izaten dira, filmearen benetako esangura ulertzeko.

Galdera honi ulertzeko, lehenik eta behin filmearen egitura ezagutu behar da, hots, akzioa non gertatzen den eta, batez ere, noiz gertatzen den. Noiz honek ez du esan nahi, akzioa zein denboratan gertatzen den, filmean barrena denbora nola bilakatzen den baizik. Sarri ikusten da, nola filmeko pertsonaiak, ametsetan edo pentsaketan, denboran atzerantz doazen, eta ez behin, askotan baizik. Flashback hauek filmearen muina ezkuta dezakete. Beste batzutan, filme barruan, akzio bat baino gehiago gertatzen da, akzio nagusiaren paraleloan. Hauk ere desberdindu egin behar dira, filmearen hari nagusiari lotu nahi bazaio.

Filmearen ordenamendua —denboran eta espazioan— ikusirik, filme bakoitza bereziki aztertu behar da, ezin eman baitaiteke guztientzako balio duen biderik. Edozein modutan, kontutan hartu behar duguna zera da, askotan filmeak espezialistentzat eginik daudela, eta publiko arruntak ez dituela ulertzen edo eta ez gairela gaira heltzen, zeren eta gure kultura, gai horretaz behintzat, oso motza baita. Izatez, gauza bertsua gertatzen zaigu beste zenbait artean, hala nola literatura, pintura edo teatroan.

FILMEAN GAUZAK NOLA ESATEN DIREN


Nahiz eta filmearen muin ideologikoa arrunta ez izan, edo gure kultur maila filmearenera heldu ez arren, hala ere, filmearen estiloa kritika dezakegu. Zer da estiloa? Nolabait esateko, ideiak adierazteko forma eta modua. Estiloa da, prezeski, filmearen kalitatea adierazten diguna, filmea “ona” ala “txarra” den esateko bidea ematen diguna, eta, azken batez, zinea arte bezala kontsideratzeko kriterioa. Filmeak aztertzean, puntu honetan zuzendariaren zeregin garrantzizkora heltzen gara. Zuzendaria da, prezeski, filmearen erantzunkizuna duena, bai filmea komertziala denean, bai propagandarako egina denean eta bai beste edozelako motibapenez egina denean. Arrazoi honegatik, hainbat zuzendarik gidoiaren prestakuntzan ere parte harzen dute.



Zuzendariaren lana juzkatzea ez da gauza erraza. Filmegintza asko aldatzen da urterik urtera, eta horregatik, filmea egin deneko urtea eduki behar dugu kontutan, eta ez hura ikusi dugunekoa. Honekin batera, aurrerapenak eskaintzen dituen bideak baliatzearen kritika doa: koloretan edo zuri-beltzetan, pantaila handi edo txiki, musika, ahotsak,...Dena hautapen baten ondoren egin da, eta hautapen horren arrazoiak ikustera saiatzen bagara, zuzendariaren eritziaren —eta filmearen— muinean sartzeko bidea ia irekita aurkituko dugu.

Filmeak kritikatzeko bide honen laburpenarekin bukatzeko, niretzat garrantzikoena den ezagugarria aipatzera noa: filmearen batasuna halegia. Filme bat ikustean eta kritikatzean, ezin ahantzizkoa dugu haren batasuna. Eta zuzendariak ba dakite hori. Baina askotan —filmearen muntaia txarragatik, edo gaiaren zailtasunagatik, edo gidoiaren kalitate gabeziagatik edo bestegatik— ez gara filmean “sartzen”, ez dugu haria topatzen, edo memento batetan gauza bat adierazi nahi dela pentsatzen dugu eta hurrengoan, beste gauza bat. Hau gertatzen bada, gehienetan filmea txarra izanen da, memento hilak egonen bide dira eta segurasko aspertu egingen gara. Baina azken gai hau —filmearen aspergarratasuna halegia— hurrengo artikulurako utziko dut.

I. Zuazo



danona

KOOPERATIBA

- * haltzarigintzan
nugusi
- * aukera
guztietako
- * logelak
- * egongelak
- * modulu gisa
tajaturiko
haltzariak

Azpeitia
Gipuzkoa
tel. 812840

IRUDIMENAREN TXOKOA



Bilbon, 1976.eko Abenduak 28

Irudimen txokorako:

Euskara zabaltzeko eta indartzeko, Euskal Estatu Sozialista bat litzateke onena. Hala ere, nik uste dut, irudimenaren txokotik epe laburrerako praktikaren eremura jo behar dugula.

Euskara ikasteko eta bertan alfabetatzeko BEHARRIZANA sentitzeko, euskara hori kanporatu, plazaratu, kaleratu behar da. Baina kaleratze hori goikoek nahi ez dutenez gero, geuk egin behar dugu kaleratze hori.

Plazaratze horrek bi alderdi ditu: bata gizonaren entzumenari eta bestea ikusmenari dagokiona.

Entzumenari buruz hauxe proposatzen dut: EDOZEIN pertsonekin hitz egin nahi badugu, telefonoz nahiz normalki gure lehen hitzak BETI izan daitezela euskaraz. Eta ageriko egintzetan: hitzaldi, asanblada, biltzarre, mitinetan... interprete edo itzultzaileak exijitu.

Eta ikusmenari buruz zera, irakurle bakoitzak bere sakeletan eraman dezala pintura edo errotulazaila bana (punta lodidunakoak, noski) eta erdaraz aurkitzen diren txartel, iragarri, planfeto eta aba-

rretan "Euskara noiz?", "Euskaraz zergatik ez?" edo euskarazko klaseak non ematen diren argiro argiro ipini. Aldiz, euskaraz dauden baina gaizki idatzita dauden iragarki eta abarretan "Eta alfabetatu noiz?" edo astabelarriak eman edo alfabetatzeko klasean non dauden ipini, faltak zuzenduz.

Honez gainera, nik uste, leku guztietan: orma, poste, seinaletan eta beste mila lekutan euskarazko hitzak edo esaldiak (itzulpenik gabe) jarri beharko ditugula.


Beraz, nire proposamena hau da, euskara ahoan beti prest eduki, eta eskuetan pintura eta errotulazailak trebeki erabili.

Horren arrazoia hau da: jendeari kuriositatea sartuz, ekinean, bere buruari galderak egingo ditu, euskarari balio bat aurkituko dio eta euskara ikasteko eta bertan alfabetatzeko beharrizana sumatuko du.

Eta inor trufatzen edo burlatzen bada gure euskara-kaleratze honetaz, pentsatzen dut BOIKOTA eta publizitate txarra eman behar diogula.

Pentsatzen dut mintzaira eta izkribua izugarritzko harmak direla herri bat altxatzeko.

Iñaki Garzia de Kortazar



J.Oregi Aranburu
BERGARA.

1977.gneko Urtarrillak 15.

ANAITASUNAREN Zuzendariari
BILBAO-ra.

Jauna:

Irakurri-berria dut Zelaie-
tak Gabriel Aresti zenaz KRI-
SELLU-n argitaratu duena.
Ahal dela gertakari bakoitzari
buruz ordun idatzitako zatiez
baliatzen delarik, bakoitzari da-
gozkion giro eta inguruaz jabe-
tzeko biderik hoberena hautatu
duelakotan nago.

Liburu hortan ba dira,
noraezko denez, joan zitzaigun
poeta aundiaren alderdi eta jo-
kabideak hobeki ezagutzeko
osakizun direnak, eta hoitako
batez jardutera natorkizu. Hona
hemen liburuaren zati batek
diona:

“(Fetxa hauetan edo, Julita
Berrojalbizekin ere egon zen
Gabriel, beronen haurrak hark
zuzentzen zuen ikastolan sartzeko.
“BAINA EZIN DUT HAIN-
BESTE DIRU ORDAINDU...
ETA GAINERA PNV-AREN
ESKOLA BATETAN ENE
HAURRAK EDUKITZEKO!”
esaten omen zion.

Julita honek, diruagatik
bazen, konponduko zutela esa-
ten omen zion... Baina, kuestioa
ez zituela eraman da. Karmele
Rotaetxek esaten digunez, Ga-
briel “HARROEGIA” zen ino-
ren diruakin bere alaben estu-
dioak pagatzeko...).

Hor dionez, Gabrielelek
diru-ordainari buruz Julitarekin
hitz egin zuen; areago, alde hor-
tatik zetozken oztopoak nola-
bait gainditu bide zituzten,
egun baten Aresti bera joan
bait-zen AZKUE ikastolara bere
alaben paperak betetzera.

Garai hartan, AZKUE ikas-
tola Elkano kalean zegoen, eta
hura sortarazten eskuhartu zu-
ten zenbait emakumek astekako
txandan hartu ohi zuten bere
gain egunean eguneango arazoez
arduratzea. Aresti joan zenean,

Karmele Goñi egokitu zen lan
hortan.

Gabriel entzutez ezagutzen
zuen, noski, eta nor zen eta zer-
tara zihoan esan zionean bere-
hala bete zituzten bi nexkei ze-
gozkien fitxak. Oztopoa, hala-
beharrez, uste ez zuten alde ba-
tetik sortu zen, Gabriel zegoe-
neko alde egitera zijoala, hain
xuxen, Karmelek “Neskak eus-
keraz jakingo dute, ez al da?
itauna egin eta ezetz erantzun
zionean.

AZKUE ikastolako arau-
diak, ordea, sei urtetik gorako
haurrek sartzeko euskeraz jakin
beharko zutela zion; nexka txi-
kienak sar zezaken, beraz, bai-
ñan ez zeukaten nagusia har-
tzerik. Gabrielelek, orduan, bat
ere ez bidaltzea erabaki zuen.

Horra beraz Zelaietak dion
“kuestioa” zertan zetzan: nahi
izanez gero ba dago gertakari
horren lekutorik, eta agian ba
dagoke honen eta harrezkeroko
Gabrielen idazlan batzuen ma-
miaren arteko zerikusirik; ho-
rregaitik derizkiot jakingarri.

Josu Oregi
Bergara.

Zuzendari jauna, agur:

Azken urte hauetan Olen-
tzaroren ohiturazko jaiaren au-
rreakuntza ikasi dugu. Komuni-
kabideek ere, pertsonaia horren
historia azaldu eta zalbaldu dute.

Leku desberdinetako ema-
nak bilduz, orain arte jai hau

Nafarroan eta Gipuzkoan batez
ere ospatu dela ikus daiteke.
Ongi da, hala ere, ohitura hori
Euskal Herri osora hedatzea.


Jatorriz, Olentzarok itxura
izugarria bide zuen, gero pertso-
naia barregari, tripahandi eta
mozkortia izatera pasatuz. Urte-
ko egunik laburrenean, udazke-
netik negurako pausoa adieraz-
ten zuen. Euskal Herrira kris-
tianismoa sartzean, egun horietan
Natibitatea ospatzen zelarik, in-
terpretamodu berri bat eman zi-
tzaion Olentzarori, Jesusen jai-
tzearen berri emale izatearena
halegia.

Hala ere, euskal ohiturak
eta ekanduak birbizteko lanetan
ari garen uneon, eta gure ohitu-
ren despersonalizatzea helburu
bezala zuten gauzak gainditzeko
asmotan gabiltzan momentuon,
herri interesen alde ez dauden
Olentzaroren interpretamoduak
sortzeari ez deritzogu egoki, ze-
ren eta ez baitute baliorik Olen-
tzaro herri jai bihurtzeko, alai-
tasunaren eta herriaren parte
hartzearen jai bihurtzeko; aldiz
Olentzaroren komertzializazioa
daramate, Olentzaroren ebolu-
zioan inoiz ere gertatu ez diren
konparaketak eginez. Prezeski,
Olentzaro euskaldunen Papa
Noel bezala erabiltzeari buruz
ari naiz hitz egiten. Penagarria
da benetan, herriaren sentimen-
tu eta baloreak modu horretan
erabiltzea.

Harrigarriago da orañdik;
zenbait kasutan gertatu den be-
zala, Olentzaroren interpretamo-
du hau, orain arte euskal kultu-
raren hazkundera inola ere ia-
gundu ez duten eta, alderantziz,
herri erakundeei era guztietako
trabak jarri dizkieten zenbait
Udalek bultzatua izan dela jaki-
tea. Hori dela eta, galdera bat da-
torkit burura —beharbada zuei
ere bai— zeren eta hori ez baita
herri Olentzarok duen esangura:
Bat bateko laguntza hori ema-
tean, zentizu izan dira Udal
horien benetako interesak?

Besterik ez. Har ezazu agur
bero bat eta segi gogor lanean:

B.G.(Sestao).



AINTZINA ETA BESTE BERRIRO ERE

Agur!

Nire (eta Txillardegiren) izena aipatzen da "ANAITASUNA"ren 329. zenbakian, PNV, EGI-BATASUNA, AINTZINA, ETA eta ESB-a direla eta. Nire izena aipatzea gainera, nire iritzia argigarri izan daitekela esaten dute izenpetzaileek. Zilegi bekit, bada, zenbait lerro idaztea, oraingoan bederen neure izenaz izepenturik.

AINTZINAREN kondaira pitin bat ageri da artikularen aurreko partean. Horretaz neronek idatzia dut (ikus "GARAIA", 3. alea, 3. orr.) eta ados nago. Geroxeago, ordea, hauxe irakurtzen dugu:

"AINTZINAN bi joera zeuden: Zenbait ETArekin batzeko aldekoak, gainontzekoak AINTZINA bezala jarraitzeko aldekoak. Elkarrizketen ondoren eta ondorioz, ETArekin batzea akordatu genuen eta zazpi puntu oinharri bezala ezarriaz elkartu ginen".

Hona egia: ETArekin batzeko nahia gure militar adarretik etorri zen, arren eta arren eskatu eta. Gutunean aipatzen diren borrokakideak (Muxika, Abaitua, Elkorro) eta beste zenbait dira lekuko. Beste bat, beti gogoan dudana Jose Antonio Aranguren "Iharra" Urdazubín hil zen tiroz. "Zazpi puntu" horiei dago kienez, jakina, ETArekin batzeko baldintzak ziren, baina berriki arte ez dut haien berri izan. Nik, noski, zenbait garantia eskatu nuen eta hala sinetsi ere itsusuan.

"AINTZINA" berez, AINTZINA bezala, ostendu zen, ETArekin biltzean". Egia da hori: AINTZINA izena eta izana desagertu ziren (Pz. Behotegik ez zuen nire proposamena onhartu nahi, hots, "ETA-AINTZINA" ezartzea). Baina bizpahiaru hila-beteren buruan, 1972.eko udan, "ZUTIK"bat argitaratu zen ondoko ezaguarriokin:

—ETA eta AINTZINAREN batzeaz ezertxo ere ez ez zer esaten (ez ongi ez gaizki etorri).

—Marxismo-leninismoa zela bide bakarra, errepikatzen zen.

—Ordurarteko gure sozialismo autokudeatzailea (autogestiozalea) gaitzesten zen.

—Txillardegi bera laidotu egiten zen.

Zer esanik ez, hura ez ziteken inola ere lagun baten iritzia izan, "ZUTIK" ETA erakundearen aldizkaria bati zen. Horrexegatik, batzuek alde egin genuen, AINTZINA izenaz gazte berriak gureganatuz, ESBA sortu zen arte. AINTZINA izena berriz erabiltzeko eskubide osoa genuen, uste dut, ez bait ginen GU pentsakeraz aldatu ETAN gelditu zirenak baizik. (Konpara itzazu, bestela, edozein "BRANKA", "Izarreko-ren sozialismoa" izeneko Txillardegiren artikulua (1) eta egun bereon defendatzen duguna.)

"Pallach-en ikasleak ez dira teke gure maisu hoberenak", irakurtzen dugu, azkenik, "ANAITASUNA"ren gutunean. Baina nor ote dira Pallach-en ikasleak? Pallach-en berri lehendabizikoz duela zortzi hilabete izan nuen: orduko iruditzen zait ez ginela politikan haur ditikoak.

Otoi, guzion onerako argitara ezazue gutun hau.

Ongi izan,

Endrike Knörr

(1) "ZABAL" aldizkaria, 19. zenbakia, 1976.eko Uztaila-Agorrila.

LIBURUAK

ZEHATZ

Fermin Calbetón, 30
DONOSTIA

ZEHATZ izenez aldizkari berri bat plazaratzen dugula eta, gertakari honen berri ematera gatozkizue.

Hasteko, nondik sortzen den kazeta hau adieraztea dugu onena. Eta hitz batez azal dezakegu. Hona: Baionako ZABALetik gatoz, funtsean ZABALEk hegoaldean duen idazle talde nagusikoak gara. Baionan urratu dugun bidetik segi nahi dugu orain eta aurrerantzean Donostian. Berriztatzea goaz bide hori, bai; baina, bide bera hegoaldeko egungo egoerara egokitzeko asmoz.

ZEHATZ kazeta zientifiko bat da. "Gizarte Zientzien Aldizkari" izan nahi du. Kazeta berezitua, formazio sozialaren azterketan berezitua, hain zuzen. ZEHATZek, bestalde, inongo eta inolako talde politikotatik libro ateratzen du bere burua. Inoren dependentsian ez, eta talde politikotatik orotarik at dago. Guztiz modan dagoen esaldia! Guretzat, ordea, moda baino zerbait gehiago dena. Independentzia honetan dugulako finkatzen kudeatzailean lan eta plangintza. Bistan da, ez duela honek oinarriko koordinatu teoriko-politiko batzuen gabezia adierazi nahi. Alderantziz, ZEHATZek ba ditu bere koordinatuak. Oraingoaz, aski dugu zerau ozenki aldarrikatzearekin, halebria ZEHATZek, eskura ditzakeen harma guztiez, ekinen diola euskal —abertzaletasun eta— sozialismuaren aldeko burukari.

Euskara hutsean eta bi hilabeteko agertzeran doan aldizkari hau maila bat baino gehiagotan arituko da, lau atal ezberdinek osatuko baitute zenbaki bakoitzaren mamia. Haatik, unibertsitate maila bati helduko dio bereziki. Baina, kasu!, ez irakurleak eta idazleak egun unibertsitarizat hartzen diren horietara mugatuz, eta bai, euskal —kulturgintzan eta— politikagintzan sarturik, teori lanez arduratzen diren orori kazeta luzatuz. Unibertsitate maila diogunean, unibertsitate gaien ikerketa eta zabalketa eman nahi dugu aditzera. Hala ere, guztia hemen agortu gabe, bestelako gaien tratamenduari bere lakua emanaz.

Urtarrilaren barruan ehun bat horrialdeko lehen zenbakia plazan ukanen dugunez, orduan jakineraziko dugu Erredakzio Kontseiluaren eta Batzorde Argitaratzailearen konposamendua. Gaurkoz, zuzendariaren izena dakargu argitara: Antton IBARGUREN, abokatu eta irakaslea. Eta, halaber, Erredakzio Kontseiluko idazkariarena: Karmelo ARROIA-BE, soziologoa.

Honenbestez, laster arte. Mila esker zuen laguntzarengatik. Donostian, 1976-ko Abenduan.



I LANGILLE !!

DESPIDORIK ASKATU AURKA
 BATZARREA ETA ANTOLATASUN
 ESKUBIDEAK ALDE
 LANGILLE KAL EAN, BERE
 POZTULANERA
 AMNISTIA OSOA ALDE
 TARABUSIREKIN ALKARTASUNA



ZASPUAK T'ERDIETAN BILBOKO LORATEGIAN
 MANIFESTAZIOA IZANGO DA

ETORRI ZAITEZ!

C. O. S.

U.G.T. U.S.O. C.C.O.O.

Nazio baten normaleztapena usuarioak eta gizamoldeak finkatuz lortzen da. Euskararen salbazioa gizartearen euskara egitea premiazko, nahitaezko eta normala izan denean erdiestiko dugu. Eta, horretarako, normaltasunezko giro bat sortzea beharrezkoa da. Giro hori, bestalde, geuk, euskaldunok egin behar dugu, horrela, geure dynamikaren poderioz, beste taldeak ere horretara bultzatuz.

Politik agirien mailan, honez gero, pauso handi batzu egin ditugu. Gaur egun geure "setakeriari esker", ez dago Euskal Herrian, jendartearen ongi ikusia izan nahi duen alderdirik, bere horriak, erdaraz gainera, euskaraz ere, nola edo hala, egiten ez dituenik. Hori zerbait da. Politikan euskararen premia sartua dugu jadanik.

Baina hori ez da nahikoa. Maiz, maizegi, euskara "itxura gordetzeko zerbait" besterik ez da izaten zenbaitentzat. Eta hori salhatu beharra dago. Euskara hizkuntza bat da, euskaldunen arteko komunikabiderako tresna bat, eta ez, "erdara ez diren zenbait hitz arraro". Kontutan-har bezate hau, hurrengorako, COS, UGT, CCOO eta USOkok. Euskarari emandako garrantzi eta tratuan nabari baita, hain zuzen, Euskal Herriagarako egiazko ardura.

NAFARROAN ESKRIBU ZAHAR BAT AURKITU

Nafarroa Behereko irakurle batek, bertako ermita batetako ormak konpontzean, eskueskribu zahar hau aurkitu berri du, eduki dezakeen garrantziagatik, ANAITASUNARA, argitara dezagun, bidalia. Hona hemen, jatorrizko idazkeraz emana:

"Aldi hartan sar cedin Propheta ardanegui batetara bere discipuluequin. Han kas bat (sic) edaten ari celaric, phariseuac hurbil cequizquion, eta honela galde eguin cioten: Maissu oná, erraguc, cein da hobe, bethi euscaraz eguiten duen espaignolistá, ala erdara berceeric ez daquien abertçalea?."

Prophetác bere beguiac cerurat altchatu eta edan eta gero, honela diotse: Hypocritoc, vipera castá, cergatic ciricatcen nauçue? Bethi euscaraz eguiten duena, berac uste ez badu ere, herriaren alde ari da, eta euscaldun guisa portatcen. Euscara iqhassi nahi ez duelaco, erdara berceeric eguiten ez duenác, aldiz, abertçale icenaz estali nahi baduçue ere, eguiac espaignolista legez dihardu, ceren nor bere mintçairaren arauera baita eçagun nongoa den. Ez dira iauná, iauná dioten eta icurrigna dararmaten guztiac salvaturen, herriaren vorondatea eguiten dutenac baicic. Eguinetan behar baita guiçona juzcatu, eta ez botilei eratchequitcen zaizquien etiquetaco hitç vanoetan.

Eta phariseuec, maissuaren argudioaz nahassiric, beren penen consolatceco, coca cola bana edan çuten".

«Txaketaz aldatzeko» erarik dotoreena.



Une honetan daramaguna da. Txaketan aldatzea. Denori iristen bai zaigu eguneratzeko ordua.

Baina badira oraindikoan ere formak. Eta ez da beharrezko helburuak aldatzea txaketaz aldatzeko. Ezta alkandora aldatzea ere. Ez eta korbata ere. Ezta neurrizko traje bat egiteko ere.

Alda zaite jaskiz. Gaur-gaurko, dotore, praktiko. Egungo estiloan. Garai berrien neurrian. Zure neurri hortan.

Auzmendi etxean.

AUZMENDI

Vergara, 1. Tfno. 414060.
DONOSTIA

Gizon jaskiak neurri-neurrian.

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi
ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat urbillago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarren kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxan den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

